

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AIARALDEKO KUADRILLA

#### **Aiaraldeko Kuadrillaren hiri-hondakin solidoak kudeatzeko ordenantza arautzailea behin betiko onestea**

Aiaraldeko Kuadrillak, 2025eko azaroaren 28an egindako ohiko batzarrean, beste erabaki batzuen artean, hasieran onetsi zuen Aiaraldeko Kuadrillako hiri-hondakin solidoak kudeatzeko ordenantza arautzailea. Hasieran onesteko iragarkia 2025eko abenduaren 10eko 140. zenbakidun ALHAOn argitaratu zen. Jendaurrean jartzeko epean ez denez erreklamaziorik egin, erabakia behin betiko onetsizat jotzen da, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 c) artikulua xedatutakoaren arabera.

7/1985 Legearen 70.2 artikulua xedatutakoa betez, onetsitako behin betiko ordenantzaren testua oso-osorik argitaratzen da, indarrean jartzeko.

Arespalditza, 2026ko urtarrilaren 13a

*Presidentea*

*IÑIGO PINEDO VADILLO*

**HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK KUDEATZEKO**  
**ARAIALDEKO KUADRILLAREN ORDENANTZA**  
**ARAUTZAILEA**

**AURKIBIDEA**

**ZIOEN AZALPENA**

**I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.**

1. artikulua. Xedea eta aplikazio-eremua.
2. artikulua. Aplikazio-eremutik baztertutako kasuak.
3. artikulua. Araubide juridikoa.
4. artikulua. Definizioak.
5. artikulua. Eskumen-esparrua.
6. artikulua. Zerbitzuak ematea.
7. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.
8. artikulua. Hondakinen titulartasuna.
9. artikulua. Erabiltzaileei baimendu gabeko jarduketak edo debekuak.
10. artikulua. Erantzukizuna.
11. artikulua. Beste kudeatzaile batzuk.
12. artikulua. Bide-garbiketa.
13. artikulua. Hondakinen bilketa-zerbitzuaren finantzaketa.
14. artikulua. Argibide teknikoak.

**II. TITULUA. HONDAKINEN BILKETA-ZERBITZUA.**

**1. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.**

15. artikulua. Erabiltzaileak.
16. artikulua. Bilketaren xedea.
17. artikulua. Bazterketak.
18. artikulua. Helburuak.
19. artikulua. Bilketa-zerbitzuko jarduketa orokorrak.
20. artikulua. Bilketa-zerbitzuen modalitateak.

- 21. artikulua. Edukiontziak, baliabideak eta instalazioak.
- 22. artikulua. Hondakinak bereizi eta biltzeari buruzko informazioa.
- 23. artikulua. Hondakinak bereizi eta biltzeari buruzko sentsibilizazioa, heziketa eta informazioa.

## **2. KAPITULUA. BILKETA EDUKIONTZIEN BIDEZ.**

- 24. artikulua. Bilketa-zerbitzua.
- 25. artikulua. Sarbidea kontrolatzeko eta erabiltzailea identifikatzeko sistema.

## **3. KAPITULUA. BILKETAREKIKO BESTELAKO PAREKO SISTEMAK.**

- 26. artikulua. Garbigunea.
- 27. artikulua. Garbigunearen kudeaketa.
- 28. artikulua. Garbigunean onartutako hondakinak.
- 29. artikulua. Erabiltzaileak.
- 30. artikulua. Etxeko konpostajea eta komunitarioa.

## **4. KAPITULUA. HONDAKINEN BILKETARI BURUZKO XEDAPENAK.**

- 31. artikulua. Xedapen orokorrak.
- 32. artikulua. Berariazko xedapenak jarduera ekonomikoetan sortutako hondakinak biltzeko.

## **1. ATALA. OHIKO BILKETAK.**

- 33. artikulua. Biohondakinen bilketa bereizia.
- 34. artikulua. Ontzi arinen hondakinen bilketa bereizia.
- 35. artikulua. Paper eta kartoizko hondakinen bilketa bereizia (halako materialeko ontziak barne).
- 36. artikulua. Beirazko ontzi-hondakinen bilketa bereizia.

37. artikulua. Beste frakzio batzuetan barne hartzen ez diren hondakinen bilketa (errefusa).

## **2. ATALA. BESTE BILKETA-ZERBITZU BATZUK.**

38. artikulua. Erabilitako sukaldeko olioaren bilketa berezia, udal-eskumenekoa.

39. artikulua. Ehungintzako hondakinen bilketa berezia (arropa, zapatak eta etxeko beste ehunki batzuk).

40. artikulua. Landare-hondakinen bilketa berezia udal-eskumeneko parkeetatik eta lorategietatik.

41. artikulua. Tamaina handiko hondakinen, tresnen eta bestelako bilketa berezia.

42. artikulua. Etxeko hondakin arriskutsuen eta zailki kudeatzen diren udal-eskumeneko bestelako hondakinen bilketa berezia.

43. artikulua. Botika-hondakinen eta botika-ontzien hondakinen bilketa berezia.

44. artikulua. Gailu elektriko eta elektronikoen bilketa berezia.

45. artikulua. Pila eta metagailuen bilketa berezia.

46. artikulua. Obra txikien eta etxeko konponketen ondoriozko eraikuntza- eta eraipen-hondakin eta -zaborren bilketa berezia.

47. artikulua. Abandonatutako ibilgailuen bilketa.

48. artikulua. Hildako etxeko animalien bilketa berezia.

49. artikulua. Ontzien, ontziak ez diren paper-kartoizko hondakinen eta biohondakinen bilketari buruzko berariazko arauak.

## **III. TITULUA. ERANTZUKIZUNAK ETA ZEHAPEN-ARAUBIDEA.**

### **1. KAPITULUA. ERANTZUKIZUNA, ZAINZA, IKUSKAPENA ETA KONTROLA.**

50. artikulua. Bide-garbiketari eta hondakinak bereizi nahiz biltzeari buruzko sentsibilizazioa, heziketa eta informazioa.

- 51. artikulua. Erantzukizuna.**
- 52. artikulua. Zaintza eta ikuskapena.**
- 53. artikulua. Lankidetzarako betebeharra.**

## **2. KAPITULUA. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK.**

- 54. artikulua. Subjektu arduradunak.**
- 55. artikulua. Arau-haustek.**
- 56. artikulua. Arau-hauste arinak.**
- 57. artikulua. Arau-hauste astunak.**
- 58. artikulua. Arau-hauste oso astunak.**
- 59. artikulua. Zigorrek.**
- 60. artikulua. Proposatutako zigorra murriztea.**
- 61. artikulua. Kaltea konpontzeko betebeharra.**
- 62. artikulua. Hertsatze-isunak.**
- 63. artikulua. Zehapen-eskumena eta -prozedura.**
- 64. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epea.**
- 65. artikulua. Arau-hausteen eta zigorren preskripzioa.**

**AZKEN XEDAPENA. Indarrean jartzea.**

### **ZIOEN AZALPENA**

Espainiako Konstituzioaren 45. artikulua dio ingurumen egokiaz gozatzeko eskubidea dela gizarte- eta ekonomia-politikaren printzipio gidaria pertsona garatzeko, eta botere publikoek, besteak beste, udalak, kontserbatu behar dutela ezinbestez, natur-baliabide guztiak arrazionaltasunez erabiltzen direla zaintzeaz gain. Helburua da bizi-kalitatea babestu eta hobetzea, eta ingurumena defendatu eta lehengoratzeko nahitazko elkartasun kolektiboan funtsatuta.

Azken urteetan, Europar Batasunean sakonki aztertu da ingurumenaren legezko arazoa, eta zuzentarauen multzoa eman da, gerora, transposizioa egiteko lege organikoetara eta erregelamenduetara, helburu finalista batekin, hain zuzen ere, gure

ingurunea hobetzea, narriatzen duten ekintzetatik gehiago babestuz ingurumena.

2018an, Europar Batasunak zenbait zuzentarau onetsi zituen eta, besteak beste, berrikusten dituzte hondakinen esparru-zuzentaraua, ontzien zuzentaraua, ibilgailuen zuzentaraua balio-bizitzaren amaieran, pila eta metagailuen zuzentaraua eta gailu elektrikoek eta elektronikoen hondakinei buruzko zuzentaraua. Zuzentarau horiek Ekonomia Zirkularerako Europako Batasunaren Ekintza Planeko “Hondakinen paketea” izeneko osatzen dute Batasunean hondakinak hobe kudeatzeko, arreta berezia jarriz udal-hondakinen kudeaketari, batez ere, produktuen bizi-zikloaren “zirkulua ixteko”. Xede horrez, gehiago prebenitu eta birziklatu nahi da, bai eta hondakinak hobe prestatu ere berrerabiltzeko. Ildo horretatik, bermatu behar da natur-baliabideak zuhurtziaz, efizientziaz eta arrazionaltasunez erabiltzea eta, bide batez, energia aurrezte eta berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea.

Horren ondorioz, ingurumenarekiko sentsibilizazio berria sortzen ari da gure gizartean, eta nahitaezkoa da araudi-esparrua gure egunerokoan bakoitzaren egungo eskubideak eta betebeharrak biltzeko.

Aurrekoa betetzeko, ingurumenaren arloko konstituzionaltasunaren blokearen arabera, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legea onetsi zen. Lege horrek aplikatu beharreko oinarritzko araubide juridiko ezartzen du Espainian hondakinetarako, eta arautzen dira, besteak beste, toki-erakundeek eskumenak hondakinen esparruan. Hala, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 25.2 eta 26. artikuluek xedatutakoa zehazten du. Bestalde, azken xedapenetatik zortzigarrenak toki-erakundeak behartzen ditu legera egokitzen diren ordenantzak onestera.

Are gehiago, udalek ezinbestez eman beharko dituzte zenbait zerbitzu edo jarduera, eta horietako batzuek ingurumenaren arloko eduki argia dute. Hala gertatzen da bide-garbiketaren eta hondakinen bilketaren kasuetan.

Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak etxeko hondakinak definitzen ditu hondakin arriskutsu edo ez-arriskutsu gisa, baldin eta etxeetan sortu badira etxeko jardueren ondorioz. Halaber, etxeko hondakintzat jotzen ditu konposizioan eta kopuruan aurrekoekin pareka daitezkeenak, nahiz eta zerbitzuetan eta industrietan sortu, betiere zerbitzuaren edo industriaren berezko jardueraren ondorioz sortu ez badira.

Era berean, kategoria honetan sartzen dira etxeetan sortzen diren hondakinak, besteak beste, sukaldeko olio erabiliak, aparatu elektriko eta elektronikoak, ehunak, pilak, metagailuak, altzariak, tresnak eta koltxoiak, bai eta etxeko eraikuntza eta konponketako obra txikien ondoriozko hondakinak eta eraikuntza-hondakinak, bide publikoak, berdeguneak, atsedenlekuak eta hondartzak garbitzean sortutako hondakinak, etxeko animalia hilak eta ibilgailu abandonatuak. Legeak merkataritzako hondakintzat jotzen ditu handizkako eta txikizkako merkataritza-jardueretan sortutakoak, bai eta jatetxeetakoak eta tabernetakoak, bulegoetakoak, azoketakoak eta zerbitzuen sektoreko gainerakoak ere.

Aurreko definizioetan funtsatuta, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 12.5 artikulua xedatutakoaren arabera, toki-erakundeak dira administrazio eskudunak nahitaez emateko honako zerbitzu publiko hauek: etxeko hondakinak biltzea, garraiatzea eta tratatzea ordenantzek zehazten dituzten baldintzetan, hondakin horiek etxeetan, merkataritzan eta zerbitzuetan sortutakoak badira.

2016an Amurrioko, Artziniegako, Aiarako, Laudioko eta Okondoko udalek eskuordetu ostean, Aiaraldeko Kuadrillak hiri-

hondakinetarako eta horiekiko parekagarrietarako eskumena duenez, arloan gizartearen eta banakakoen jokabideetarako oinarriak jarri nahi ditu, eta, aldi berean, gure ingurunean eragina duten jardueretan administrazioaren esku-hartzea arautu nahi du. Halaber, aplikatu beharreko zigor-araubidea sartu nahi du arlo horietan erantzukizunik onartu nahi ez dituztenentzat.

Ordenantza honek araudi horiek guztiak garatuko ditu Aiaraldean, berezko jokabideen berezitasunak kontuan hartuta. Helburua da herritarrek eraginkortasunez parte hartzea araudiak betetzeko. Hala, ardura partekatuko dute, lankidetzan jardungo dute eta lagunduko dute gizarte-ondasun komun baten ondorioz beren inguruneko ingurumena hobetzen. Beraz, ingurumen hori erabiltzeko eta gozatzeko herritarren eskubidetzat jo behar da, eta aitortzen da ekintza publikorako eskubidea ingurumenaren erabilera eta gozamena bermatze aldera.

Ordenamendu juridikoak ematen dizkion eskumenak eta zerbitzu honen udal-eskuordetzeak baliatuta, Aiaraldeko Kuadrillak kalitatezko espazio publikoa bermatu nahi die bere herritarrei.

Helburu horrekin idatzi da ordenantza hau, eta baliabide erabilgarria izan nahi du bere eremuan Konstituzioaren eskakizunak betetzeko, hain zuzen ere, bizi-kalitatea babestu eta hobetzea, bai eta ingurumena defendatu eta lehengoratzeta ere.

Helburua eskuraezina litzateke gizartearen lankidetzeta aktiborik gabe (ezinbesteko elkartasun kolektiboa). Izan ere, gizarteak berak bere egin behar du dagokion erantzukizuna ingurunea babesteko.

Bestalde, kuadrillari dagokio ingurumena babesteko bere eskakizuna betetzea, eta, xede horrez, neurriak hartuko ditu ingurumena prebenitzeko, minimizatzen, efektuak zuzentzeko edo, bidezkoa bada, jarduketa publikoak edo pribatuak debekatzeko, baldin eta efektu kaltegarriak badituzte ingurumenean eta bizi-kalitatean.

Hierarkian gorago dauden lurralde-administrazioekin (Estatua eta autonomia-erkidegoak) eskumenak antolatzearen kalterik gabe, udalek erantzukizun nabarmena dute ingurumenaren arloan, hura babestea “berezko” eskumena baita toki-erakundeentzat Toki-arabidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. eta 26. artikuluek xedatutakoaren arabera. Aurrekoaren harira, udalen eskumena da bideak garbitzea eta hondakinak biltzea, bai eta ordenantzen bidez, herritarren jardueran esku hartzea ere 84. artikuluko ahalari jarraikiz.

Halaber, ingurumena babesten lagundu nahi da honako hauek indartzera bideratutako ekintzak koordinatuz: murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak xedatutako helburuei jarraikiz. Legeak toki-erakundeek esleitzen die etxeko hondakinen bilketa, garraioa eta tratamendua nahitaezko zerbitzu gisa, hondakin horiek etxeetan, merkataritzan, zerbitzuetan eta bestelako jarduera parekagarrietan sortuz gero.

Ordenantza hau garatzeko, Aiaraldeko Kuadrillak bere eskumenak baliatuko ditu eskualdeko hiri-hondakinen eta parekagarrien arloan. Zerbitzua zeharka kudeatuko du, onets daitezkeen kudeaketa-planekin bat etorritik, ekoizleek edo edukitzaileek ordenantzak zehazten dituen baldintzetan entrega ditzaten hondakin horiek, unean-unean indarrean dagoen lege-esparruari erreparatuz.

Aurrekoaren harira, ordenantza tresna bat da erantzunkidetasun publikoa eta pribatua antolatzeko hirigunea eta ingurumen-kalitatea babestearen alde. Horregatik, herritarren lankidetzaz-espirtua ezinbestekoa da arau askotan, besteak beste, hondakinak gaika biltzeko eta udalerrira garbitzeko estrategietan. Izan ere, udalek kuadrillari eskuordetu zioten eskumen hori, bai eta ondasunak eta instalazioak zaintzea ere.

Azkenik, ordenantzaren artikulua guztiak inspiratu behar dituen elkartasun kolektibo hori, aldi berean, esparru komunitarioan oso onartuta dauden eta gure barne-araudian jasota dauden ingurumen-

printzipioen oinarria eta adierazpena da, hala nola "kutsatzen duenak ordaindu egiten du" printzipioarena. Printzipio hori ordenantza honetan islatu da, eta, ondorioz, ingurumen- eta hirikalteen arduradunak kaltetutakoa berritu eta konpontzeko kostu guztiak ordaindu beharko ditu.

Araudiaren berrikuntza horiek direla eta, hiri hondakin solidoak biltzeari buruzko ordenantza hau onetsi behar da, 65 artikulutan eta azken xedapen batean antolatuta.

**3 titulu ditu:** lehenengoa, xedapen orokorrei buruzkoa; bigarrena, hondakinak biltzeko zerbitzuari dagokiona; eta hirugarrena, erantzukizunen eta zigor-araubidearen gainekoa.

**I. tituluan (xedapen orokorrak)**, honako gai hauek jorratzen dira, besteak beste: xedea eta aplikazio-eremua, kuadrillak kudeatuko dituen hondakin motak azpimarratuz. Eskumenen esparrua eta bilketa-sistemekiko erabiltzaileen betekizunak zehazten dira.

**II. tituluan (hondakinak biltzeko zerbitzua)**, hondakinak biltzeko zerbitzuak lantzen dira. 2 kapitulutan banatuta dago: lehenengoan, xedapen orokorrak daude bilketari (motak, hondakinak botatzeko berariazko arauak eta jarduera ekonomikoen ondorioz sortutako hondakinetarako bilketa) eta herrian sortutako ekitaldiei buruz; bigarrenean, berriz, erakundearen eskumeneko hondakinen bilketa da aztergai.

Bigarren kapitulu horrek, aldi berean, bi sekzio ditu: ohiko bilketarako bata eta bestelako bilketa zerbitzuetarako bigarrena.

Azkenik, **III. tituluan (erantzukizunak eta zigor-araubideak)**, erantzukizunak definitzen dira, arau-haustek tipifikatu ere bai, eta zigor-araubidea dago.

## **I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK**

## 1. artikulua. Xedea eta aplikazio-eremua.

1. Ordenantza honen xedea da araubide juridikoa arautzea Aiaraldeko Kuadrillaren ardurapean dauden hiri-hondakin solidoen kudeaketari dagokionez Amurrioko, Artziniegako, Aiarako, Laudioko eta Okondoko udalek eskuordetutako eskumen-eremuan.

Ordenantzaren helburua da Aiaraldeko Kuadrillaren eskumeneko hondakinen sorrera prebenitzeko, eta hondakinak berrerabiltzeko, botatzeko eta gaika biltzeko jokabide eta jarduera guztiak arautzea. Izan ere, ordena horretan kudeatu nahi dira, eta, ondorioz, prestatu behar dira berrerabiltzeko, birziklatzeko, eta bestelako balorizazio material edo energetikorako. Xedea da zabortegean isuritakoa minimizatzea eta ingurumen-eragina global hobea lortzea, gizakiaren osasunerako eta ingurumenerako inpaktu kaltegarriak arinduz.

2. Ordenantza hau orokorrean aplikatuko zaie hondakinak kudeatzeko zerbitzuei, ordenantzan bertan ezarritako moduan, eta hondakinen eta toki-araubidearen arloan Estatuko eta Erkidegoko araudiak xedatutakoaren arabera, baldin eta udalek eskumena eskuordetu badiote Aiaraldeko Kuadrillari. Xede horrez, unean-unean, interes orokorrerako egokienentzat jotzen diren sistema teknikoei eta antolakuntzazkoei erreparatuko zaie, aintzat hartuta zerbitzuen efizientzia operatiboa eta ekonomikoa eta herritarrei emandako kalitatea.

3. Aiaraldeko Kuadrilla osatzen duten udalerrietan gaituta dauden baliabideetan edo instalazioetan hondakinak botatzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiak edo hartzaileak ezinbestez bete beharko dituzte ordenantza honek xedatzen duena eta interpretatzeko edo garatzeko ematen diren arauak.

4. Hondakinak kudeatzeko zerbitzuak finantzatzearen, eskuordetutako zerbitzua emateko Aiaraldeko Kuadrillari egin behar zaizkion udal-ekarpenen (ohikoak eta ezohikoak) eta herritarrentzat zerbitzuak emateagatiko tasen gainean,

eskuordetze-erabakiei eta unean-unean indarrean dauden udal-ordenantza fiskalei erreparatuko zaie, hurrenez hurren.

5. Aiaraldeko Kuadrillak komenigarritzat jotzen duen interpretazioa egingo du ordenantza hau aplikatzen denean sortzen diren zalantzak argitzeko.

## **2. artikulua. Aplikazio-eremutik baztertutako kasuak.**

1. Salbuetsiak daude hondakin arriskutsuak, etxeakoak izan ezik, betiere bilketa eta tratamendua arautzen duten erregelamenduetan eta arauetan badaude.

2. Ordenantza honek ez ditu arautuko hondakinen arauak baztertutakoak eta, bereziki, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak udal-eskumenekotzat jotzen ez dituenak.

3. Salbuetsiak daude industria-hondakinak, baldin eta industria-jardueraren ondorioz sortutakoak badira, ezin badaitezke etxeoekin parekatu; halaber, kanpoan geldituko dira merkataritzagune kolektiboetakoak, guneek beren hondakinak kudeatu behar baitituzte.

## **3. artikulua. Araubide juridikoa.**

1. Ordenantza honek arautzen dituen jardueri eta jokabideei aplikatu behar zaien araubide juridikoa honako hauekin osatuko da: ordenantza bera, aplikatu beharreko Estatuko eta Erkidegoko legedia arloan eta zuzeneko aplikazioa duen Europako araudia.

2. Ordenantza hau arautzeko, honako araudi hauetan eta dagozkien garapen-, aplikazio- edo aldaketa-arauetan dauden printzipioei eta definizioei erreparatu zaie:

- Batzordearen 2014/955/EB Erabakia, 2014ko abenduaren 18koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE

Zuzentarauaren arabera, hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE erabakia aldatzen duena.

- 7/2022 Legea, apirilaren 8koa Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko denak (2. artikulua).

- 1055/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, ontziei eta ontzi-hondakinei buruzkoa (2. artikulua).

- 265/2021 Errege Dekretua, apirilaren 13koa, balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuei buruzkoa eta abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra aldatzen duena (3. artikulua).

- 553/2020 Errege Dekretua, ekainaren 2koa, hondakinak Estatuko lurraldearen barnean mugitzea arautzen duena (2. artikulua).

- 646/2020 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, hondakinak zabortegetan utziz deuseztatzeko jarduera arautzen duena (2. artikulua).

- 293/2018 Errege Dekretua, maiatzaren 18koa, plastikozko poltsen kontsumoa murrizteari buruzkoa eta Ekoizleen Erregistroa sortzen duena (3. artikulua).

- 110/2015 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzkoa (3. artikulua).

- 105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duena (2. artikulua).

- 106/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, pilei eta metagailuei eta hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoa (3. artikulua).

- 1619/2005 Errege Dekretua, abenduaren 30ekoa, erabiltzen ez diren pneumatikoen kudeaketari buruzkoa (2. artikulua).

#### **4. artikulua. Definizioak.**

Aurreko artikuluan aipatu diren araudi-xedapenek ezarritakoaren arabera, ordenantza honek xedatzen duenerako, hona hemen definizioak:

a) «Sukaldeko olio erabilia»: landare- eta animalia-jatorriko koipe-hondakinak, etxeetan, zentro eta erakundeetan, hoteletan, jatetxeetan eta antzekoetan elikagaiak prestatzen erabilitakoan sortzen direnak.

b) «Olio erabiliak»: industrian edo lubrifikaziorako erabilitako olio mineral, natural eta sintetiko guztiak, hasieran aurreikusitakorako erabiltzeko moduan ez daudenak; hala nola errektza-motorretako olio erabiliak, abiadura-kaxetako olioak, olio lubrifikatzaileak, turbinetarako olioak eta olio hidraulikoak, sukaldeko olio erabiliak izan ezik.

c) «Agente»: hirugarren batek eskatuta, hondakinak balorizatzeko edo ezabatzeko lana antolatzen duen pertsona fisiko edo juridiko oro, hondakinak fisikoki jasotzen ez dituztenak barne.

d) «Arrantza-aparailu»: arrantzan edo akuikulturan, itsasoko eta ur kontinentaletako baliabide biologikoak erakarri, harrapatu edo hazteko baliatzen den gauza edo ekipamendu bateko osagai oro, edo ur-azalean flotatzen duena eta hedatu dena itsasoko eta ur kontinentaletako baliabide biologiko horiek erakarri, harrapatu edo hazteko.

e) «Agintaritza eskuduna»: lege honetan aurreikusitako egitekoak betetzeko ardura dutenak, Gobernuak eta administrazio publikoek –Estatuaren Administrazio Orokorrak, autonomia-erkidegoek eta, lege hau betearazteko, Ceuta eta Melillako hiriek, foru-aldundiek eta toki-entitateek– bakoitzak bere eskumenen esparruan izendatutakoak, 12. artikuluan ezarritako eran.

f) «Zabor soltea»: horretarako izendatutako lekuetatik at utzitako hondakinak, naturaguneetan edo hirietan bazterretan botata agertzen direnak eta, hortaz, hasierako egoerara itzuli ahal izateko ohiko edo ezohiko garbiketa eskatzen dutenak.

g) «Biohondakina»: landare-jatorriko hondakin biodegradagarriak, etxe, lorategi, parke eta zerbitzuen sektorean sortutakoak; bai eta etxe, bulego, jatetxe, handizkari, sukaldaritza kolektiboko zerbitzu eta txikizkako kontsumo-establezimenduetatik ateratako elikagai-eta sukalde-hondakinak, besteak beste, eta elikagaiak eraldatzeko instalazioetatik ateratako antzeko hondakinak.

h) «Merkaturatzea»: merkataritza-jardueraren barruan, merkatu nazionalean banatu, kontsumitu edo erabiltzekoa den produktuen hornidura oro, kostu bidezkoa nahiz doakoa.

i) «Konposta»: bereizita bildutako hondakin biodegradagarrien kontrolatutako tratamendu biologiko aerobio eta termofilatik lortutako material organiko higienizatu eta egonkortua. Ez da konpost gisa hartuko material bioegonkortua.

j) «Material digeritua»: bereizita bildutako hondakin biodegradagarrien tratamendu biologiko anaerobiotik lortutako material organikoa. Ez da digeritu gisa hartuko material bioegonkortua.

k) «Ekonomia zirkularra»: ekonomiako produktu, material eta gainerako baliabideen balioa ahalik eta gehien iraunarazten duen sistema ekonomikoa, produkzioan eta kontsumoan zehar erabilera efizientea bultzatuz, erabilerak ingurumenean duen inpaktua gutxitzeko, eta bizi-ziklo osoan sortzen diren hondakinak eta askatzen diren substantzia arriskutsuak minimizatzeko, hala dagokionean hondakinen hierarkia aplikatuz.

l) «Ezabaketa»: balorizazioa ez den eragiketa oro, baita eragiketa horren bigarren ondorio gisa substantzien edo materialen aprobetxamendua –trataturiko hondakinaren pisuaren % 50 gainditzen ez badute– edo aprobetxamendu energetikoa lortzen bada ere. III. eranskinean ezabatze-eragiketen zerrenda ez exhaustiboa ageri da.

m) «Ontzia»: Ontzien eta Ontzi Hondakinen apirilaren 24ko 11/1997 Legearen 2.1 artikuluan definitutakoaren arabera.

n) «Merkataritza-establezimendua»: lokalak eta saltokiak, finkoak, non aldizka handizkako edo txikizkako produktuak saltzeko merkataritza-jarduerak, ostalaritza- eta jatetxe jarduerak edo jendeari antzeko izaerako zerbitzuak emateko jarduerak egiten diren, bai eta legezko edo arauzko xedapenaren arabera kalifikazio hori jasotzen duten beste edozein esparru mugatu ere.

ñ) «Merkataritza-establezimendu kolektiboa»: esparru, parke edo eraikin beraren barruan instalatutako lokal edo saltoki multzo batek osatzen du, eta merkaturatze lizentzia bakarra du, nahiz eta lokal edo saltoki bakoitzak bere jarduera modu independentean garatzen duen, enpresa arloari dagokionez.

o) «Ekitaldi publikoak»: jarduera hauek hartzen dira halakotzat:

- Jendaurreko ikuskizunak: errepresentazio, emanaldi, jarduera, erakusketa edo proiektio bat ikustera joaten den jendea biltzen duen gertakari oro; enpresa batek, artistek edo haren kontura esku hartzen duten exekutatuak eskaintzen dute.

- Jolas- eta kirol-jarduerak: jardueran parte hartzeko edo enpresak eskaintzen dizkien zerbitzuak jasotzera joaten den jendea biltzen duen gertakari oro. Jarduera eta zerbitzu horien helburua aisia, entretenimendua, dibertsioa, kirola eta jarduera fisikoa dira.

- Jarduera soziokulturalak: jarduera sozial eta kulturaletan parte hartzeko helburuarekin pertsona talde bat bildu edo elkartu dezaketenak (azokak, Herri-jaiak eta beste ekitaldi batzuk). Kanpo utziko dira ekitaldi politikoak edo errebindikazio-ekitaldiak, hala nola manifestazioak, mitin politikoak edo antzekoak.

p) «Hondakinen kudeaketa»: hondakinak bildu, garraiatu, balorizatu eta ezabatzea, horiek sailkatzea eta beste aurre-lan batzuk barne, bai eta lan horiek nola egiten diren zaintzea eta zaborteak itxi ondorengo mantentze-lanak egitea ere. Negoziatzaile edo agente gisa egindako jarduketak ere sartzen dira.

q) «Hondakin-kudeatzailea»: hondakinen ekoizle izan ala ez, hondakinen kudeaketan sartzen diren eragiketak egiten dituen pertsona fisikoa edo juridikoa, publikoa nahiz pribatua, baimen edo komunikazio bidez erregistratua.

r) «Merkatuan sartzea»: produktu bat merkatu nazionalean lehenengo aldiz merkaturatzea.

s) «Material bioegonkortua»: eduki organikoa duen materiala, hondakin nahasien tratamendu mekaniko-biologikorako instalazioetan lortutakoa.

t) «Teknika erabilgarri onenak»: teknika erabilgarri onenak Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 3.12 artikuluan definitzen diren moduan. Testu bategina abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren testu bategina onesten duenak, onetsi zuen.

u) «Negoziatzailea»: hondakinen erosketan eta ondorengo salmantan bere kontura jarduten duen pertsona fisiko edo juridiko oro, hondakinak fisikoki jasotzen ez dituztenak barne.

v) «Arau harmonizatua»: Europaren normalizazioari buruzko 2012ko urriaren 25eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1025/2012 (EB) Erregelamenduaren 2.1.c artikuluan jasotako definizioaren arabera. Erregelamendu horren bidez Kontseiluaren 89/686/EEE eta 93/15/EEE

zuzentarauak eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 94/9/EE, 94/25/EE, 95/16/EE, 97/23/EE, 98/34/EE, 2004/22/EE, 2007/23/EE, 2009/23/EE eta 2009/105/EE zuzentarauak aldatzen dira, eta Kontseiluaren 87/95/EEE Erabakia eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1673/2006/EE Erabakia indargabetzen dira.

w) «Plastikoa»: polimero batez osatutako materiala —kimikoki aldatuak izan ez diren polimero naturalak izan ezik—, aditiboak eta bestelako substantziak ere onar ditzakeena eta azken produktuen egiturazko osagai nagusi gisa funtziona dezakeena; polimeroa Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 18ko (EE) 1907/2006 Erregelamenduak 3.5 artikuluan definitzen duen moduan ulertu behar da, (erregelamendu horrek substantzia eta prestakin kimikoen erregistro, ebaluazio, baimen eta murrizketari buruzkoak (REACH) eta Substantzia eta Prestakin Kimikoen Europako Agentzia sortu, 1999/45/EE Zuzentaraua aldatu eta Kontseiluaren 793/93 (EEE) Erregelamendua, Batzordearen (EE) 1488/94 Erregelamendua eta Kontseiluaren 76/769/EEE Zuzentaraua eta Batzordearen 91/155/EEE, 93/67/EEE, 93/105/EE eta 2000/21/EE zuzentarauak indargabetzen ditu). Material polimerikoak diren pintura, tinta eta itsasgarriak ez dira plastikoetan sartzen.

x) «Plastiko biodegradagarria»: deskonposizio fisiko edo biologikoa jasan dezakeen plastikoa, halako moldez non, deskonposizioa jasanda, azkenean karbono dioxido (CO<sub>2</sub>), biomasa eta ur bihurtzen den, eta, hortaz, ontziei buruzko Europako arauen arabera, konpostajearen eta digestio anaerobioaren bidez baloriza daitekeen.

y) «Plastiko oxodegradagarria»: aditibo bereziak dituzten material plastikoak. Aditibo horien oxidazioaren ondorioz material plastikoa mikrozatitan txikitzea lortzen da edo plastikoaren deskonposizio kimikoa.

aa) «Hondakinen edukitzailea»: hondakinen ekoizlea edo hondakinak dauzkan pertsona fisiko edo juridikoa. Hondakinen edukitzailetzat hartuko da hondakin abandonatuak edo zabor solteak dauden lurzatiaren titular katastrala, eta hura izango da hondakinen erantzukizun administratiboa duena, materiala han

zeinek utzi duen edo aurreko edukitzailea zein zen identifikatzea posible den kasuetan izan ezik.

ab) «Berrerabiltzeko prestatzea»: balorizazio-eragiketa bat da; hondakin bihurtu diren produktuak edo produktuen osagaiak egiaztatu, garbitu edo konpondu egiten dira, eta, horrela, aurretiko beste eraldaketarik gabe, berriro erabiltzeko prest uzten eta, teknika eta kontsumoaren aldetik aplikatu beharreko arauak betez gero, hondakin gisa hartzeari uzten.

ac) «Prebentzioa»: substantzia, material edo produktu baten sorkuntzaren eta diseinuaren, ekoizpenaren, banaketaren eta kontsumoaren fasean hartutako neurriak, honako hauek gutxitzeko:  
1.a Hondakinen kantitatea, baita produktuak berrerabiliz zein produktuen balio-bizitza luzatuz ere.

2.a Sortutako hondakinek ingurumenean eta gizakien osasunean dituzten inpaktu kaltegarriak, baita materialen edo energiaren erabilera aurrezte ere.

3.a Materialetan eta produktuetan dauden substantzia arriskutsuak.

ad) «Erabilera bakarreko plastikozko produktua»: erabat edo partzialki plastikoz fabrikaturiko produktua da, eta ez dago hasieratik pentsatuta, diseinatuta edo merkatuan sartuta, bere bizikizikloan, hainbat zirkuitu edo errotazio osatzeko, ekoizle bati berriro itzulita hasieran pentsatu zen helburu bererako bete edo berrabil dezan.

ae) «Hondakin-ekoizlea»: hondakinak ekoizten dituen edozein pertsona fisiko edo juridiko ("hondakinen hasierako ekoizlea") edota aldez aurretik tratamenduren bat, nahasketa edo bestelakoren bat egin eta hondakinen konposizioan edo berezkotasunean aldatetaren bat eragiten duen pertsona oro. Mugako instalazioetan kontrol- eta ikuskapen-zerbitzuek erretiratutako salgaien kasuan, hondakinen ekoizletzat joko da salgaiaren titularra edo salgaiaren inportatzaile edo esportatzailea, aduanetako legerian ezarritako eran. Epaile batek agindutako konfiskatze-ekintzetan agintaritzako polizia erretiratutako salgaien kasuan, salgaiaren titularra joko da hondakinaren ekoizletzat.

af) «Produktuaren ekoizlea»: produktuak modu profesionalean garatu, fabrikatu, prozesatu, tratatu, bete, saldu edo inportatzen dituen pertsona fisiko edo juridiko oro, merkatu nazionalean sartzeko erabilitako salmenta-teknika edozein dela ere. Kontzeptu

honetan sartzen dira bai lurralde nazionalean finkatuta daudenak eta produktuak merkatu nazionalean sartzen dituztenak, bai Batasuneko estatu batean edo hirugarren herrialde batean finkatuta daudenak, baldin eta etxeetara edo etxe pribatu ez diren beste erabiltzaile batzuei zuzenean saltzen badizkiete produktuak urruneko kontratuen bidez. Urruneko kontratu gisa hartuko dira urruneko salmenta edo zerbitzu-prestaziorako antolatutako sistema baten esparruan egiten diren kontratuak, kontratuaren bi aldeak aldi berean fisikoki presente egon gabe, eta kontratua sinatu arte eta sinatzeko unean bertan, soilik urruneko komunikazio-sistemak erabili badira, hala nola posta, Interneta, telefonoa edo faxa.

Merkataritza elektronikoko plataformek bere gain hartuko dituzte, produktuaren ekoizle gisa, finantza- eta informazio-betebeharrak, bai eta, hala dagokienean, antolaketakoak ere, honako kasu honetan: aurreko paragrafoko definizioan jasota dagoen eta Batasuneko estatu batean edo hirugarren herrialde batean finkatuta dagoen ekoizleren batek plataforma horiek erabiltzen baditu, eta ez badago inskribatuta ekoizlearen erantzukizun hedatuari buruz dauden erregistroetan eta ekoizlearen erantzukizun hedatuaren araubidearen ondorio diren gainerako betebeharrak ere betetzen ez baditu. Ondorio horietarako, merkataritza elektronikoko plataformak produktu-ekoizle gisa bere egiten dituen produktu guztien gaineko inskripzio bakarra egin ahal izango du, eta produktu horien erregistro bat eraman beharko du.

ag) «Tabako-produktuak»: Tabako-produktuak eta haiekin lotutako produktuak fabrikatu, aurkeztu eta merkaturatzearekin zerikusia duten zenbait alderdi arautzen dituen ekainaren 9ko 579/2017 Errege Dekretuak 3.ac) artikuluan definitutakoaren araberakoak.

ah) «Garbigunea»: toki-entitatearen bilketa-esparruaren barruan dagoen biltegitratzeko instalazioa, etxeo hondakinak bereizita biltzen dituen.

ai) «Birziklapena»: bai jatorrizko helbururako, bai beste helburu baterako, hondakinen materialak produktu, material edo substantzia bihurtzeko balio duen balorizazio-eragiketa. Horren barruan sartzen da material organikoaren eraldaketa, baina ez balorizazio energetikoa, ez eta erregai gisa edo betetze-eragiketarako erabiliko diren material bihurtzea.

aj) «Bilketa»: hondakinak hasieratik modu profesionalean jaso, sailkatu eta biltegitratzeko eragiketa, ondoren tratamendu-instalazio batera garraiatzeko asmoarekin.

ak) «Bilketa bereizia»: hondakin mota eta izaeraren arabera, bereizita jasotzea da, tratamendu espezifikoak errazte aldera.

al) «Olio erabilien birsorkuntza»: edozein birziklapen-eragiketa, erabilitako olioak finduta (batez ere olio horiek dituzten osagai kutsatzaileak, oxidazioak eragindakoak eta aditiboak kenduta) olio baseak ekoiztea ahalbidetzen duena.

am) «Ekoizlearen erantzukizun hedatuaren araubidea»: produktuen ekoizleek produktu baten bizi-zikloaren hondakin-fasearen kudeaketaren gaineko finantza-erantzukizuna edota finantza- eta antolaketa-erantzukizuna beren gain hartzen dutela bermatzeko hartutako neurrien multzoa.

an) «Betelana»: hondakin ez-arriskutsu egokiak hondeatutako eremuak berroneratzeko edo paisaia-ingeniaritzako obretarako erabiltzen dituen balorizazio-eragiketa oro. Betelanetarako erabiltzen diren hondakinek hondakin ez diren materialak ordeztu behar dituzte, lehen aipatutako xedetarako egokiak izan behar dute, eta helburu horiek lortzeko behar-beharrezkoa den kantitatera mugatuta egon behar dute. Betelanak hondeatutako eremuak berroneratzera bideratuta badaude, eragiketa horiek justifikatu egin behar dira luraren jatorrizko topografia lehengoratu beharra dagoela egiaztatuta.

añ) «Hondakina»: jabeak bertan behera utzi duen edo bertan behera uzteko asmoa zein betebeharra duen edozein substantzia edota objektu.

ao) «Hondakin ez-arriskutsua»: artikuluko honen añ) apartatuko definizioan sartzen ez den hondakina.

ap) «Hondakin arriskutsua»: I. eranskinean zerrendatutako arrisku-ezaugarrietako bat edo batzuk dituen hondakina, eta Gobernuak hondakin arriskutsu gisa kalifikatzen duena, Europar Batasuneko araudian edo Espainia parte den nazioarteko hitzarmenetan ezarritakoaren arabera. Definizio honetan sartzen dira, halaber, substantzia edo prestakin arriskutsuen hondarrak dituzten edo horiekin kutsatuta dauden ontziak, salbu eta frogatzen bada ez dutela I. eranskinean zerrendatutako arrisku-ezaugarririk.

aq) «Nekazaritza- eta baso-hondakinak»: nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-jarduerak sortutako hondakinak.

ar) «Elikagai-hondakinak»: hondakin bihurtu diren elikagai guztiak. Elikagai gisa hartu behar dira Elikagaigintzako legediaren printzipio eta betekizun orokorrak ezarri, Elikagaien Segurtasunaren Europako Agintaritza eratu eta elikagaien segurtasunari buruzko prozedurak ezartzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko urtarrilaren 28ko (EE) 178/2002 Erregelamenduak 2. artikuluan adierazitako definizioarekin bat datozenak.

ar) «Merkataritzako hondakinak»: handizkako zein txikizkako merkataritza-jardueretan sortutakoak dira, jatetxe eta taberna zerbitzuetan, bulego eta azoketan eta zerbitzuen sektoreko gainerako jardueretan eragindakoak.

at) «Tokiko eskumeneko hondakinak»: toki-erakundeek kudeatutako hondakinak.

au) «Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak»: eraikuntza- eta eraispen-jardueretan sortutako hondakinak.

av) «Etxeko hondakinak»: etxeko jardueraren ondorioz etxeetan sortzen diren hondakinak, arriskutsuak eta ez-arriskutsuak. Etxeko hondakintzat hartzen dira, halaber, zerbitzu eta industrietan sortutako aurrekoen antzekoak –konposizioari eta kantitateari dagokienez–, zerbitzuaren edo industriaren berezko jardueraren ondorioz sortzen ez direnak.

Kategoria horretan sartzen dira, besteak beste, etxeetan sortutako sukaldeko olio erabili, aparatu elektriko eta elektroniko, ehun, pila, metagailu, altzari eta tresnen hondakinak, bai eta etxeko eraikuntza eta konponketako obra txikien ondoriozko hondakinak eta zaborrak ere.

Etxeko hondakintzat hartuko dira bide publiko, berdegune, jolas-eremu eta hondartzen garbiketan jasotako hondakinak, etxe-abere hilak eta utzitako ibilgailuak.

ax) «Industria-hondakinak»: industria-jarduerak bere jarduera nagusiaren ondorioz sortutako ekoizpen-, fabrikazio-, eraldaketa-, erabilera-, kontsumo-, garbiketa- edo mantentze-prozesuetako hondakinak.

ay) «Udal-hondakinak»:

1.a Etxeetan bildutako hondakin nahasiak eta bereizita bildutakoak, barnean direla papera eta kartoia, beira, metalak, plastikoak, bio-hondakinak, zura, ehunak, ontziak, aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinak, pilen eta metagailuen hondakinak, etxeko hondakin arriskutsuak eta tamaina handiko hondakinak, koltxoiak eta altzariak barne.

2.a Beste jatorri batzuetako hondakin nahasiak eta bereizita bildutakoak, baldin eta etxeko hondakinen izaeraren eta konposizioaren antzekoak badira.

Udal-hondakinen artean ez dira sartzen ekoizpenetik, nekazaritzaetik, basogintzaetik, arrantzaetik, hobi septikoetatik, estolderia-saretik eta hondakin-urak tratatzeko instalazioetatik datozen hondakinak –araztegiko lohiak barne–, balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuak eta eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak.

Definizio hau sartu da lege honetan berrerabiltzeko prestatzearen eta birziklatzearen arloan ezarritako helburuen aplikazio-eremua eta kalkulu-arauak zehazteko, horrek ezertan galarazi gabe eskumen-banaketa araberako hondakinak kudeatzeko erantzukizunak agente publiko eta pribatuaren artean banatzea.

az) «Berrerabiltzea»: hondakin ez diren produktuak edo osagaiak hasieran zuten helburu berberarekin berriro erabiltzea ahalbidetzen duen edozein eragiketa.

ba) «Lurzoru kutsatua»: giza jardueratik datozen osagai kimiko arriskutsuak egoteagatik ezaugarriak modu negatiboan aldatu zaizkion lurzorua, gizakien osasunerako edo ingurumenerako arrisku onartezina dakarrena, Gobernuak zehazten dituen irizpide eta estandarren arabera.

bb) «Hondakinen garraioa»: enpresek beren jardueraren profesionalaren esparruan –jardueraren nagusia izan edo ez– hirugarrenen enkarguz modu profesionalean egiten duten hondakinen mugimenduan datzan kudeaketa-eragiketa.

bc) «Tratamendua»: balorizazio- edo ezabatze-eragiketak, horien aurreko prestatzea barne.

bd) «Balorizazioa»: hondakina funtzio jakin bat betetzeko sortutako beste material batzuk ordeztzeko erabiltzea edo hondakinak instalazioan edo ekonomia orokorrean funtzio hori

bete dezan prestatzeko eragiketa. II. eranskinean, balorizazio-eragiketen zerrenda dator. Ez da exhaustiboa.

be) «Materialen balorizazioa»: balorizazio-eragiketa oro, salbu eta balorizazio energetikoa eta hondakinak erregai gisa edo energia sortzeko bestelako bitarteko gisa erabiltzeko material bihurtzen dituzten eragiketak. Hor sartzen dira, besteak beste, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea eta betelana.

## **5. artikulua. Eskumen-esparrua.**

**1.** Aiaraldeko Kuadrillaren eskumena da etxeko hondakinak kudeatzea eta gaika biltzea, hondakin horiek Amurrio, Artziniega, Aiara, Laudio eta Okondo udalerrietako etxeetan sortu badira. Dena den, kudeaketa eta bilketa hori zabaldu ahalko da merkataritzako eta industriako beste hondakin batzuetara, izaera dela eta edo autosufizientziaren printzipiora eta gertutasunera egokitzen direlako, kuadrillak hala erabakitzen duenean hitzarmen baten bidez ala jarraibide tekniko bat tarteko edo zuzenbidearen araberrako beste edozein formula erabiliz

Beren-beregi Laudio udalerriaren kasuan, baztertzen da hondakinen bilketa automatizatua (pneumatikoa) bere mugartean, bai eta zerbitzu zehatz horren erabilerari dagokion lege- eta zigor-ahala. Izan ere, horren eskumena Laudioko Udalak Udalaren beraren esku utzi zuen, eta ez zion Aiaraldeko Kuadrillari transferitu 2016ko ekainaren 30eko eskuordetze-akordioan.

**2.** Udalek zerbitzua eskuordetzeko hartu zituzten akordioen arabera, kuadrillak, oro har, udal-hondakinak kudeatzearekin lotutako zerbitzu guztiak egin beharko ditu (bilketa, tratamendua eta garraioa). Udal-hondakinen definizio horren barruan sartzen dira etxeko hondakinak, hau da, etxeetan sortutakoak etxeko jardueraren ondorioz, bai eta haiekin pareka daitezkeenak ere, nahiz eta merkataritzaren, ostalaritzaren eta antzekoen berezko jardueran sortuak izan:

- a. Errefusaren bilketa.
- b. Ontzi arinen hondakinen gaikako bilketa.

- c. Gai organikoaren gaikako bilketa.
- d. Paper-kartoiaren gaikako bilketa edukiontzietan eta atez ate merkataritzan.
- e. Beiraren gaikako bilketa.
- f. Ehunen bilketa.
- g. Gaikako bilketa azokatan, herri-jaietan eta beste ekitaldi batzuetan.
- h. Eraikuntza-hondakinen bilketa, etxeko eraikuntza- eta konponketa-obra txikietatik badatoz.
- i. Bide-garbiketako hondakinak kudeatzea.
- j. Etxeko animalia abandonatuen bilketa bide publikotik.
- k. Altzarien, tresnen eta bestelakoen bilketa.
- l. Ibilgailu abandonatuen bilketa bide publikotik.
- m. Etxeko landare-olio erabilien bilketa.
- n. Pilen, CDen eta antzeko beste hondakin batzuen bilketa bide publikoan instalatuta dauden minipuntuetatik (ekoguneak), bai eta xede horrez gaituta dauden beste bilketa-puntu batzuetatik ere.
- o. Transferentzia-gunearen kudeaketa.
- p. Laudioko GARBIGUNEAREN kudeaketa.
- q. Errepatatze- eta garbiketa-zerbitzua ekarpen-guneetan eta edukiontzien eremuetan.
- r. Artziniegako hirigune historikotik edukiontziak mugitzeko zerbitzua.
- s. Bilketa pneumatikoaren zentrolean gordetako hondakinak mugitzeko zerbitzua (Laudion bakarrik).
- t. Okondoko landako garbigunearekin lotutako garbiketalanak.
- u. Merkataritzako hondakinak, etxekoekiko parekagarriak, atez ate biltzeko beste zerbitzu batzuk.
- v. Eta, oro har, merkataritza-, zerbitzu- eta industria-jardueran sortutako oro, baldin eta biltzea, garraiatzea eta gordetzea badagokio Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen arabera eta Aiaraldeko Kuadrillak zehazten dituen baldintzetan, eskuordetze-akordioen babesean, beren-beregi salbuetsi direnak izan ezik.

3. Era berean, Aiaraldeko Kuadrillak honako ahalmen hauek izango ditu:

- a. Onestea bere hondakinen kudeaketa-sistema eta/edo hondakinen prebentzio-programa, eskuordetutako eskumenen esparruan eta Estatuko esparru-planarekin eta/edo erkidegoetako eta foruetako planekin koordinatuta.
- b. Merkataritzako hondakin ez-arriskutsuak biltzea, hondakin horien ekoizleek beren kabuz kudeatzearen kalterik gabe 7/2022 Legearen 20.3 artikuluko bigarren idatz-zatian aurreikusitako baldintzetan, ordenantza honek xedatzen duenaren ildotik.
- c. Industrian sortzen diren etxeko hondakinak biltzea ordenantza honek xedatzen dituen baldintzetan.
- d. Onetsitako edozein kudeaketa-modutan zerbitzuak ematea, zuzenean edo zeharka, administrazio-kontratazioari buruzko legedian aurrez ikusitako modalitateen bidez.
- e. Kuadrillako udal kideak ordezteko edozein erakunde publiko edo pribaturen aurrean eskuordetutako zerbitzuak kudeatzearen gaian (harremanak beste erakunde batzuekin, dirulaguntzak eskatzea...).
- f. Helburuak betetzeko, behar den guztia erostea eta gainerako finantza-eragiketak egitea.
- g. Jakinaraztea eta sentsibilizatzea udal-ondasunen kontserbazioari buruz, hirigunea kontserbatzen dela eta segurtasun, osasungarritasun eta apaintura publikoko baldintzetan mantentzen dela zaintzeko.

4. Aiaraldeko Kuadrillarena da zigor-ahala, bai eta bere eskumenen esparruan zaintzari eta ikuskapenari dagokiona ere, ordenantza honen III. tituluan xedatutakoari jarraikiz.

5. Ordenantza honek edo bere eskumeneko hondakinei buruzko indarreko araudiak zehazten dituen helburuak betetzen ez badira, kuadrillak ordenantza honetako neurriak aldatu ahal izango ditu betetzen direla bermatzeko.

**6. artikulua. Zerbitzuak ematea.**

1. Aiaraldeko Kuadrillak ordenantza honetan eta bere garapen-tresnatan aurreikusten diren hondakinen bilketa-zerbitzuak emango ditu, toki-araubideari buruzko araudiak aurreikusten duen edozein kudeaketa-modu baliatuz.

2. Etxeko hondakin arriskutsuen edo etxeko hondakinen kasuan, baldin eta horien ezaugarri bereziek kudeaketa zailtzen badute edo garraioan, bilketan, balorizazioan edo ezabaketan nahasmenduak sor baditzakete, Kuadrillak betebeharrak hauetako bat edo batzuk ezarri ahal izango dizkie haien edukitzaileei:

- a. Neurriak hartzea ezaugarri horiek ezabatzeke edo murrizteke.
- b. Botatzea Kuadrillak bereziki zehazten dituen moduan eta tokian.
- c. Bilketa erabiltzaileak aldezturik eskatuta egitea, ordenantza honen 41. eta 48. artikuluetan araututako araubide berezian.
- d. Hondakinak ezin badira Kuadrillak aurreikusitako baliabideekin bildu, halaberrez ekoizleak berak kudeatzea, bilketa-sistematik kanpo, kudeatzaile baimendu bati edo erregistratutako kudeatzaile bati emanaz. Etxeetan sortutako etxeko hondakinei dagokienez, ezin izango da neurri hori hartu, berariazko araudi batek hala ezartzen ez badu. Nolanahi ere, hondakinen edukitzaileek, beren borondatez, hondakinen kudeatzaile bati zuzenean ematea erabaki ahal izango dute, ordenantza honen II. tituluko 4. kapituluan jasotako kasuetan.

3. Oro har, bilketa-zerbitzuak ez dira sartuko erakunde eta entitate publikoen barruti itxietan hondakinak biltzera, ez eta partzela pribatuetan ere.

Edukiontzia bide publikoan egongo dira udalek eta Kuadrillak zehazten dituzten baldintzetan.

4. Larrialdi-egoeratzat edo ezinbesteko egoeratzat hartzen diren eta bilketa-zerbitzua normaltasunez eman ezin den egoeretan, eta Kuadrillak egiaztatu, deklaratu eta jakinarazi ondoren, zerbitzua aldi baterako aldatu edo eten ahal izango da. Kasu horietan, erabiltzaileek ez dute hondakinik utziko zerbitzua normalizatu arte edo kasu bakoitzean dagozkion jarraibideak eman arte. Salbuespen horiek aplikatzeak ez du inola ere eskubiderik emango erabiltzaileek zerbitzuak emateagatik ordaindu beharreko kalte-ordaina edo murrizketa jasotzeko, ordenantza honen 13. artikulua arabera.

## **7. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.**

1. Hondakinen ekoizleak bilketa-sistemaren erabiltzaileak badira, orokorrean, honako betebeharrak izango dituzte:

- a. Hondakinen bolumena murriztea eta poltsen nahiz edukiontzien edukiera optimizatzen duten moduan botatzea. Kartoizko ontzien kasuan, tolestuta bota beharko dira, ordenantza honek aurreikusitakoaren arabera, eta, aldi berean, hondakinak tolestatu edo zatitu beharko dira ordenantza honetan ezartzen diren kasuei jarraikiz.
- b. Hondakinak jatorrian behar bezala bereiztea ordenantza honek zehazten dituen frakzioen arabera, eta edukiontzietan botatzea (estalkiak eta/edo itxiturak itxiz erabili ostean) edo xede horretarako zehaztutako bilketa-puntuetan uztea. Aplikatu behar denean, edukiontziak edo ontziak bide publikora ateratzea kuadrillak definitzen dituen orduetan eta tokietan, zerbitzu publikoak jaso dituzan.
- c. Hondakinak bota eta entregatzeko ordutegiak betetzea.
- d. Kalteak sor ditzaketen hondakinak (beira laua, loza, latorria, etab.) segurtasunez botatzea.
- e. Edukiontziak eta hondakinen bilketa-zerbitzuak behar bezala erabiltzea, bortxatu eta hondatu gabe.
- f. Paperontzietan edo xede horrez egokitutako edukiontzietan botatzea bide edo atsedengune publikoetan (hondartza,

parkeak, lorategiak, etab.) sortutako hondakinak. Halakorik ez badago, edukiontzi edo gaitutako tokirik gertuenetan bota beharko dira, mota eta izaeraren arabera.

- g. Errautsak itzali eta hoztu ondoren botatzea.
- h. Edukiontzien zamalanak, mantentze-lanak, mugimenduak eta garbiketa-lanak ez eragozte.
- i. Edukiontzia beteta badago, ez dira hondakinak botako, ez eta bide publikoan utziko ere. Halakoetan, frakzio bereko beste edukiontzi batzuetara eramango dira hondakin horiek edo edukiontziak hustu arte itxarongo da. Ohiz beteta badaude, gomendatzen da egoera kuadrillari jakinaraztea horretarako ezarrita dauden baliabideen bidez.

**2.** Kuadrillak uko egin diezaioke hondakinak eramateari, aurreko zehazpenei jarraikiz, modu egokian botata ez badaude.

**3.** Sortutako hondakinen izaera edo kopurua dela eta, justifikatuta badago, kuadrillak baldintza bereziak eskatu ahal izango ditu, hala nola poltsa edukiontzian jartzea edo nahitaez hondakinak zehaztutako ordutegian botatzea.

**4.** Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 20.3 artikuluko azken idatz-zatian xedatutakoaren arabera, udalaren bilketa-zerbitzutik kanpo gelditzen diren hondakinei dagokienez, kuadrillak eska diezaieke merkataritzako hondakin ez-arriskutsuen ekoizleei dokumentuz egiaztatzea behar bezala kudeatzen dituztela hondakin horiek.

Egiaztatzeko, honako hauek egin beharko dituzte:

- a. Hondakinak jatorrian bereiztea eta higiene- eta segurtasun-baldintza egokietan mantentzea erabiltzailearen ardurapean dauden bitartean, eta behar bezala bereizita entregatzea frakzioka hondakinen kudeatzaileei, aplikatu beharreko araudiak xedatzen duenaren arabera.
- b. Hondakinak egokiro biltzen eta tratatzen direla egiaztatzen duten dokumentuak izatea. Gainera, kuadrillari eta

autonomia-erkidegoko erakunde eskudunari bidali beharko zaizkie, hala eskatzen zaienean.

Dokumentazioa dela bide, ikusten bada atal honetan arautzen den hondakinen bat ez dela behar bezala kudeatzen ari edo gabeziaren bat dagoela, 5 egun baliodunetan zuzendu beharko da egoera hori. Bestela, ekoizlea kuadrillaren bilketa-sistemara atxiki beharko da.

**5.** Ekitaldi publikoen antolatzaileak ekitaldi horietan sortzen den zikinkeriararen erantzule izango dira, eta ezinbestez jakinaraziko diote kuadrillari ekitaldiaren ibilbidea, ordutegia eta tokia, eta kuadrillak eskatu ahal izango die fidantza bat ekitaldiaren ondorengo hondakinen bilketa-eragiketen ustezko zenbatekoagatik.

Bilketa kuadrillak egin behar badu subsidiarioki eta eragiketen zenbatekoa fidantzakoa baino handiagoa bada, aldea ekitaldiaren antolatzaileek ordaindu beharko dute.

## **8. artikulua. Hondakinen titulartasuna.**

**1.** Ondorio guztietarako, hiri-hondakinek betiere titular arduradun bat izango dute: hondakinen ekoizlea, edukitzailea edo kudeatzailea.

**2.** Administrazio-erantzukizunaz salbuetsita geldituko diren bakarrak dira hondakinak ordenantza honetan eta gainerako aplikazio-araudian ezarritako arauekin bat etorritik entregatzen dituztenak kudeatzeko. Hala entregatzen direnean, hondakin horien jabea kuadrilla izango da. Halaber, erantzukizunaz salbuetsita geldituko dira hondakinak pertsona fisiko edo juridiko bati entregatzen dizkietenak, baldin eta pertsona fisiko edo juridiko hori kudeatzaile baimendua bada edo biltzaile erregistratua izanik, kudeatzaile baimenduari entregatuko diola bermatzen badu.

**3.** Aurreko idatz-zatiak aurreikusitakoa bete gabe hondakinak entregatu edo jasotzen dituztenak elkertasunez erantzungo dute kalteak daudenean, zigor egokiak gorabehera.

**9. artikulua. Erabiltzaileei baimendu gabeko jarduketak edo debekuak.**

Ez daude baimenduta honako hauek:

- a. Hondakinak bide publikoan edo udalerriko beste edozein tokitan ala hondakin motarako gaituta ez dauden edukiontzietan edo espazioetan botatzea edo abandonatzea, horretarako egokitutako eremuetan izan ezik.
- b. Gaitutako edukiontzietan edo espazioetan hondakinak botatzea, legez xedatutako moduan ez bada.
- c. Edukiontziak ordenantza honetan aurreikusitako xedeak ez diren beste xede batzuetarako erabiltzea.
- d. Espazio publikoetan instalatuta dauden baliabideetatik aparte botatzea hondakin txikiak, hala nola paperak, txikleak, zigarro-puntak, karameluak, azalak eta antzekoak.
- e. Edukiontziak beren kokapenetatik mugitzea, lekualdatzea edo tokialdatzea; su ematea; pedalak eta estalkiak bidegabe manipulatzeko; iraultzea edo elementu horiek kentzea; pegatinak itsastea; eta beste ekintza batzuk egitea estetika hondatzeko eta ohiko erabilera eragozteko.
- f. Hondakin solidoak edo likidoak (zigarro-puntak, pixoihalak, janari-hondakinak, etab.), bai eta olioak eta, bereziki, sukaldeko olio erabilia, zuzenean botatzea saneamendusarean, nahiz eta aurretik birrinduta egon.
- g. Ordenantza honetan ezarritako moduan hondakinak udalzerbitzuen esku jarri ondoren, horiek erauztea, horietan bilatzea edo horiek jasotzea.
- h. Edukiontzietan bota baino lehen hondakinen dentsitatea handitzeko instalazioak egitea Kuadrillak berariaz baimendu gabe.
- i. Edukiontzietan pintadak eta grafitiak egitea, paperezko kartelak edo itsasgarriak jartzea iragarkiekin, publizitatearekin edo propagandarekin.

**10. artikulua. Erantzukizuna.**

Hondakinen edukitzaileek ez dute erantzukizunik izango hondakinek sor ditzaketan kalteengatik, betiere entregatzeko orduan ordenantza hau eta aplikazioko gainerako arauak bete badira.

#### **11. artikulua. Beste kudeatzaile batzuk.**

Pertsona fisikorik edo juridikorik ezingo da ibili etxeko eta/edo merkataritzako hondakinak biltzen eta aprobetxatzen Kuadrillaren berariazko baimenik gabe, hondakin horiek kuadrillaren eskumenekoak badira.

#### **12. artikulua. Bide-garbiketa.**

Aiaraldeko Kuadrillako udalen bide-garbiketako hondakinak, hala nola eskuzko ekorketan edo mekanikoan sortutakoak, hostoak, etab., eskualdearen jabetzako edukiontzietan botako dira, horretarako kokatuta baitaude, baina Kuadrillak baimendu beharko du.

#### **13. artikulua. Hondakinen bilketa-zerbitzuaren finantzaketa.**

Ordenantza honetako hondakinen bilketa-zerbitzuak finantzatzeko, zerbitzua kuadrillari eskuordetzeko udal bakoitzaren akordioak eta organo eskudunaren akordioak kontuan hartuko dira.

#### **14. artikulua. Argibide teknikoak.**

Ordenantza honen zenbait alderdi tekniko osatu, zehaztu edo zabaltzeko, kuadrillak halabeharrezko argibideak egin ahalko ditu ordenantza hau hobe aplikatu dadin.

## **II. TITULUA. HONDAKINEN BILKETA-ZERBITZUA**

### **1. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK**

**15. artikulua. Erabiltzaileak.**

Zerbitzu horiek emateko, erabiltzaile-kategoria izango dute helbidea Amurrio, Artziniega, Aiara, Laudio eta Okondo udalerrietan duten pertsona fisiko edo juridiko guztiek, edo ordenantza honen xede diren zerbitzuak erabiltzen dituztenek, baldin eta Aiaraldeko Kuadrillak hondakinak biltzeko, tratatzeko eta aprobetxatzeko eskumena badu.

**16. artikulua. Bilketaren xedea.**

Honako hondakin hauek bilduko dira:

- a. Elikagaien eta etxeko kontsumoaren hondakinak, herritarrek beren etxebizitzetan sortzen dituztenak.
- b. Herritarrek espaloiak ekortzean sortutako hondakinak.
- c. Inausketa- eta lorezaintza-hondakinak.
- d. Merkataritza-lokaletako bilgarriak, ontziak, enbalajeak eta bestelako hondakinak.
- e. Zerbitzu- eta merkataritza-jardueratan nahiz jarduera ekonomikoetan sortutako hondakinak, etxeko hondakinen antzeko ezaugarriak badituzte eta, beraz, udal-eskumenekoak badira.
- f. Tabernatan, jatetxeetan eta elikagai prestatuak ala edonolako kontsumizioak ematen dituzten gainerako establezimenduetan kontsumitzeagatiko hondakinak. Era berean, supermerkatuetan, autozerbitzuetan eta antzeko establezimenduetan sortutakoak.
- g. Kontsumo orokorreko hondakinak, egoitzetan, hoteletan, ikastetxeetan eta bestelako establezimendu publikoetan, bai eta jendearentzako establezimendu irekietan ere sortu badira.
- h. Udal-azoken jardueraren ondorioz sortutako hondakinak.
- i. Etxeko eraikuntza- eta konponketa-obra txikietatik eratorritako hondakinak eta eraikuntza-hondakinak.

- j. Etxeetan eta merkataritzan sortutako errautsak.
- k. Etxeko tamaina handiko tresnak, jantziak, oinetakoak eta beste edozein antzeko produktu.
- l. Etxeko animalia hilak.
- m. Etxeko hondakin arriskutsuak, herritarrek beren etxeetan sortu badituzte.
- n. Udal-eskumeneko osasun-hondakinak.
- o. Beste edozein, izaera eta konposizioa dela eta, etxeko hondakinekin pareka badaitezke.

#### **17. artikulua. Bazterketak.**

Honako zerbitzu hauek ez dira inolaz ere bilketa-zerbitzuan sartuko:

- a. Hondakin arriskutsuak, etxeetakoak eta jarduera parekagarrietakoak izan ezik.
- b. Industria eta merkataritzako hondakinak, izaera, konposizioa edo aurkezpena dela eta, etxeko hondakinekin ezin daitezkeenean pareka, hau da, jarduera ekonomikoaren ondorioz sortutakoak.
- c. Erabilerarik gabeko pneumatikoak, jarduera ekonomikoetan sortutakoak.
- d. Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustategietatik sortutako hondakinak, animalia hilak barne.
- e. III. taldeko hondakin klinikoak, Foru Komunitateko Osasun Hondakinak kudeatzeko arauteria ezartzen duen irailaren 13ko 296/1993 Foru Dekretuaren arabera kalifikatutakoak.
- f. Hondakin likidoak edo likidotu daitezkeenak.
- g. Hondakin erradioaktiboak.
- h. Beste edozein, izaera, konposizioa edo ezaugarriak direla eta, ezin badaitezke etxeko hondakinekin pareka.
- i. Hondakin lehergarriak eta piroteknikoak.

#### **18. artikulua. Helburuak.**

1. Indarreko araudiak helburuak ezartzen ditu berrerabiltzeko, birziklatzeko eta beste balorizazio-modu batzuetarako, betiere ingurumena eta pertsonen osasuna babesteari begira.

2. Xede horrez, kuadrillak bilketa-sistema bat du, zeinetan erabiltzaileak nahitaez bota behar dituen hondakin aprobetxagarriak edo berariaz biltzea komeni direnak berezita.

3. Hondakinak behar bezala kudeatzeko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko, kuadrillak ordenantza honetan neurriak zehazten ditu jatorrian gehiago bereziki eta bilketa-zerbitzua optimizatze aldera.

#### **19. artikulua. Bilketa-zerbitzuko jarduketa orokorrak.**

Bilketa-zerbitzuak honako jarduketak hauek hartzen ditu barne:

- a. Hala badagokio, hondakinak ibilgailuetara edo hondakinak biltzeko beste baliabide batzuetara eramatea, hondakinen edukiontzietan edo sistema baliokideetan, bai eta hondakinak hustea eta jatorrizko puntuetara itzultzea ere.
- b. Hondakinak kudeaketa-instalazio egokietara garraiatzea eta deskargatzea.
- c. Aurreko eragiketen ondorioz isuritako hondakinak kentzea.
- d. Edukiontziak eta eskualde-bilketako beste puntu batzuk mantentzea, garbitzea eta birjartzea, erabilera eskusibokoak diren edukiontziak izan ezik.
- e. Bilketa ibilgailuak mantentzea, garbitzea eta birjartzea.

#### **20. artikulua. Bilketa-zerbitzuen modalitateak.**

Ordenantza honetan xedatutakoaren ondorioetarako, bilketa-zerbitzua honako modalitate hauetakoren batean emango da:

- a. **Ohiko bilketa:** derrigorrez eman beharreko zerbitzua da, eta frakzio hauek bilduko dira hondakinen ekoizleek zerbitzua eskatu gabe: organikoa, ontziak, errefusa, tresnak eta tamaina handiko hondakinak eta etxeko landare-olioa. Aurreko zerrendari, besteak beste, egun Arabako Foru Aldundiak ematen dituen bilketak gehitu behar zaizkio, hala nola edukiontzietako papera eta kartoia, hondakin berrerabilgarriak eta beira-ontziak Ecovidrioren esku.

Kuadrillak udal-hondakinetako frakzioen ohiko bilketa egingo du, modalitate hauetako baten edo gehiagoren bidez:

aa) Hondakin-frakzio bakoitzerako edukiontzien bidez, zeinak behar bezala identifikatuta egongo diren.

ab) Atez ate, hau da, ontziratu gabeko poltsa itxietan edo bolumen txikiko hondakinak jartzea bide publikoetan, kuadrillak adierazitako toki eta ordutegietan. Arraindegietako hondakinak, papera-kartoia eta biohondakinak biltzean datza.

ac) Dagokionean ezar litezkeen beste sistema batzuk.

- b. **Beste bilketa batzuk:** Kuadrillaren eskumenekoak diren baina aurretik aipatutako ohiko bilketen modalitateen bidez biltzen ez diren hondakinetarako.

## 21. artikulua. Edukiontziak, baliabideak eta instalazioak.

1. Kuadrillako zerbitzu teknikoek zehaztuko dituzte erabili beharreko edukiontzi mota eta unitate-kopurua. Arabako Lurralde Historikoko herri-batzarrei buruzko martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauaren 7 b) artikuluan ezarritako eskumenen arabera, kontzejuek zehaztuko dituzte edukiontzien kokapenak, baldin eta Kuadrillak irizten badio proposatutako tokietan puntuen bilketa egitea bideragarria dela. kontzejua ez dagoen herrietan, udalek

zehaztuko dute edukiontzien kokapena, aurretik adierazitakoarekin bat. Hala ere, hirigune bakoitzean jarri beharreko edukiontzikopurua, eta kopuru hori handitu edo murriztea kuadrillaren erabaki eskusiboa izango da, eta erabakia premiei buruzko txosten egokien arabera hartuko du.

2. Hirigune edo udal bakoitzaren administrazio-batzarrak, hala badagokio, bertan jarritako edukiontziak zaintzen eta arauhaustetzat jotako egintzak argitzen lagunduko du.

3. Salbuespeneko kasuetan, bai eta justifikazioa duten horietan ere, edukiontzien puntuak eta unitate-kopuruak handitzeko aukera aztertuko da.

4. Zerbitzua emateko, kuadrillak, hondakin-frakzio bakoitza biltzeko sistemaren arabera, kasuan-kasuan, halabeharrezko edukiontzi, baliabide eta instalazioak emango ditu, eta, era berean, bere ardurapekoa izango da edukiontziak mantendu, garbitu eta birjartzea, beharrezkoa denean. Edukiontziek nahiz bilketa-baliabideek behar bezala identifikatuta egon beharko dute, eta, behar denean, kolore bereizgarria eta dagokion serigrafia izango dute.

5. Kuadrillak, udalekin edo administrazio-batzarrekin lankidetzan arituz, zehaztuko ditu bilketa-puntuak eta, bidezkoa bada, edukiontzien kokapena bide publikoan, eta horretarako honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan: efizientzia, ekonomia, antolakuntza, hondakinen erabiltzaileentzako gertutasuna eta irisgarritasuna, eta osasun eta segurtasun publikoa –pertsona eta ingurumenarena–.

6. Aurreko apartatuan adierazitakoari kalterik egin gabe:

- a. Bilketa-sistemaren arabera, hondakinen ekoizleek, salbuespen gisa, erabilera eskusiboko edukiontzia eskatu ahalko diote kuadrillari, behar bezala justifikatuz. Edukiontzi horiek kuadrillak zehaztutako tokian jarriko dira, eta Kuadrillak berak definituko du maiztasuna,

balorazioa egin ondoren, bilketarako eskualde-zerbitzuak hondakinak bildu ditzan.

- b. Era berean, kuadrillak erabilera eskusiboko edukiontzia eskuratzera behartu ahalko ditu jabeen erkidegoak edo, udalak erabakita eta zerbitzuaren efizientzia eta eraginkortasunerako irizpideei jarraikiz, erabilera kolektiboko edukiontziak jartzen ez diren tokietan dauden familia bakarreko etxebizitzaren titularrak. Kasu bietan, erabiltzaileari edo jabeen erkidegoari dagokio edukiontzi horiek mantendu, garbitu eta birjartzea.
- c. Merkataritza-hondakin ez-arriskutsuak biltzeko zerbitzuari atxikitako establezimenduen kasuan, kuadrillak, zerbitzua erabiltzen den frakzio bakoitzerako sortutako hondakinen bolumenaren arabera, bilketa berezia egiteko edukiontziak eskuratu eta erabiltzera behartu ahal ditu, kuadrillak ezarritako ezaugarriekin, bilketa-zerbitzuarekin bateragarriak izan daitezzen.

## **22. artikulua. Hondakinak bereizi eta biltzeari buruzko informazioa.**

Kuadrillak zerbitzua emateko baldintzak argitaratuko ditu, eta, bereziki, hondakin frakzioak uzteko egunei eta ordutegiari eta horiek jasotzeko modalitateei, baldintzei eta entrega-puntuei dagozkienak, bai eta zerbitzua behar bezala erabiltzeko egokitzat jotzen duen beste edozein ere.

## **23. artikulua. Hondakinak bereizi eta biltzeari buruzko sentsibilizazioa, heziketa eta informazioa.**

1. Kuadrillak herritarrak sentsibilizatu, hezi eta informatzeko kanpainak, programak eta bestelako jarduerak sustatuko ditu, honako gai hauen inguruan: kontsumo-ohiturak, hondakinen sorrera murriztea, hondakinak jatorrian frakzio bidez bereiztea eta dagokien edukiontzietan botatzea, bai eta sakabanatutako zaborra prebenitzea ere.

2. Aurreko apartatuetan adierazitako jarduerak garatzeko, kuadrillak, besteak beste, lankidetzaz-hitzarmenak eta -akordioak sinatu ahal izango ditu subjektu publiko eta pribatuekin, hala nola unibertsitateekin, ingurumena babestea xede duten irabazi asmorik gabeko erakundeekin, ekoizlearen erantzukizun hedatuko sistemekin eta enpresa-elkarteekin.

3. Kuadrillak, hondakinak bereizita biltzeko eta hobetzeko betebeharrak justifikatze aldera, jasotako hondakin frakzio bakoitzari ematen zaion azken tratamenduaren berri emango du sentsibilizazio- eta informazio kanpaina eta -jardueretan, haren webgunearen bidez, Arabako Foru Aldundiarekin, Scraps-ekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta abarrekin lankidetzan arituz, eta hondakinen kudeaketatik eratorritako diru sarreretan eta gastuetan izango duen eragin ekonomikoaren berri emango du.

## 2. KAPITULUA BILKETA EDUKIONTZIEN BIDEZ

### 24. artikulua. Bilketa-zerbitzua.

1. Aiaraldeko Kuadrillak hondakinak biltzeko ohiko zerbitzua ezarri du edukiontzien bidez, eta erabiltzaileek behar bezala erabili beharko dituzte. Hondakinak biltzeko zerbitzua emateko orduan, honako lan hauek hartuko dira barne:

- a. Edukiontziak bilketa-ibilgailuetaraino mugitzea.
- b. Edukiontziak hustea.
- c. Behin hustuta, edukiontziak euren ohiko tokira itzultzea.
- d. Lan horien ondorioz bide publikora eroritako hondakinak jasotzea.
- e. Hondakinak garraiatzea eta kuadrillak horretarako gaitutako tratamendu-zentroetan deskargatzea.
- f. Edukiontziak garbitzea eta mantentzea.

2. Edukiontzi mota, erabili beharreko unitate-kopurua eta kokapena kuadrillak zehaztuko ditu. Behin kuadrillak edukiontzien

puntu bateko kokapena zehaztuta, ezingo da aldatu bertako zerbitzu teknikoen berariazko baimenik gabe.

**3.** Erabiltzaileek ezingo dituzte edukiontziak mugitu.

**4.** Jabetza publikoko edukiontziak direnez, kuadrillak berri egingo ditu, partikularrei inolako kargurik eragin gabe, ohiko erabileraren ondorioz hausten badira eta konpondu ezin badira edo desagertzen badira; erabiltzaileari dagokion kargua egotzi ahalko zaio, oker erabiltzeagatik edukiontziak ezin direnean erabili (pisu gehiegi, oker erabiltzea, etab.).

**6.** Titularrak hala eskatuta, edukiontziak jabetza pribatuetan jarri ahalko dira, baldin eta bilketa oztoporik gabe egin badaiteke eta zerbitzuko ibilgailuek trabarik gabe har baditzakete.

**7.** Kuadrillak behin-behinean edukiontzien kokapena aldatu ahalko du, interes publikoko interesek hala eskatzen dutenean. Behin mugitzeko arrazoia amaituta, jatorrizko tokira itzuliko dira.

## **25. artikulua. Sarbidea kontrolatzeko eta erabiltzailea identifikatzeko sistema.**

**1.** Berrerabili, birziklatu eta indarreko legedian jasotako beste balorizazio-era batzuk lortzeko, pixkana sarbidea kontrolatu eta erabiltzailea identifikatzeko sistemak instalatu ahalko dira edukiontzi eta postontzietan, irekitze-gailuen bidez. Gailuek ahalbidetuko dute edukiontzi eta/edo postontzi bakoitzaren datuak bildu eta erregistratzea, erabilera-maila ezagutzeko. Hala, legediak ezartzen dituen helburuak lortu ahalko dira, eta zerbitzua eta bere emaitzak sustatzeko jarduerak egin ahalko dira.

**2.** Erabilera-irizpideak eta irekiera-gailuen eskuragarritasuna araudian edo ondorengo erregelamenduetan ezarri beharko dira.

### 3. KAPITULUA BILKETAREN ANTZEKO BESTE SISTEMA BATZUK

#### 26. artikulua. Garbigunea.

1. Aiaraldeko Kuadrillak eskualdea osatzen duten udalerrri guztien (Amurrio, Artziniega, Aiara, Audio eta Okondo) eskura instalazio finkoa jarri du Laudion. “Garbigunea” deritza.

2. Honako hauek dira Garbigunearen helburuak:

- a. Bilketa-zerbitzua betetzea, ohiko sistemen bidez bildu ezin diren hondakinak entregatzeko aukera emanez.
- b. Kuadrillari laguntzeko azpiegitura gisa jardutea hondakinen kudeaketan.
- c. Berrerabilpena sustatzea.

#### 27. artikulua. Garbigunearen kudeaketa.

1. Garbigunearen zerbitzua doakoa da, eta pertsonak, merkataritza-jarduerak eta antzeko erabiltzaileek erabil dezakete.

#### 28. artikulua. Garbigunean onartutako hondakinak.

1. Garbigunean etxeko honako hondakin hauek utzi ahalko dira:

- a. Sukaldeko olio erabiliak.
- b. Ehun-hondakinak (jarntziak, oinetako erabiliak, etxeko beste ehun batzuk).
- c. Pilen eta metagailuen hondakinak, berun-azidozko baterienak barne.
- d. Hondakin handiak, hala nola altzariak eta tresnak.
- e. Obra txikietako eta etxeko konponketetako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak, amiantoa dutenak edo erradioaktiboak direnak salbu.
- f. Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinak, lanpara eta argien hondakinak barne.

- g. Inausketen hondakinak eta lorezaintzako beste hondakin batzuk.
- h. Erradiografiak.
- i. Kristalak, hala nola edalontziak, platerak, kopak, leihoetako eta ateetako kristalak.
- j. Aerosolen eta produktua duten espraien hondakinak.
- k. Presiopeko ontzien hondakinak.
- l. Kutsatutako ontzien hondakinak (substantzia kutsatzaileak dituzten produktuak edukitzeagatik edo eduki izanagatik, hala nola margoak, bernizak, disolbatzaileak, pestizidak, libragailuak, etab.).
- m. Etxeko hondakin arriskutsuak.
- n. Erabili ezin diren pneumatikoak, garbiguneetan erabili ezin diren pneumatikoak biltzeko prozeduraren arabera, 1619/2005 Errege Dekretuaren 13. artikularekin bat.
- o. Kuadrillak ordenantza honen garapen-arauetan espreski zehaztutako beste hondakin batzuk.

2. Aiaraldeko Kuadrillak beti erabiltzaileen eskura utziko du Garbigunean utzi ahal diren hondakinen zerrenda, bai eta honako hauei buruzko informazioa ere: funtzionamenduan dagoen ordutegia eta egunak, onartutako gehieneko bolumena eta botatzeko modua.

### **29. artikulua. Erabiltzaileak.**

1. 28. artikuluan zerrendatutako hondakinak botatzeko garbiguneen erabilera kuadrillako edo berariaz adierazitako goragoko erakundeko edozein udalerritako etxebizitzetan helbideratutako partikularrentzat edo etxebizitza horien titularrentzat gordeko da, hurrengo 2.b) apartatuan ezarritakoari kalterik egin gabe.

2. Ordenantza honen garapen-arauen bidez –Garbigunearen erregelamendua– erabilerari lotutako honako zehaztapen hauek ezarri ahalko dira:

- a. Entrega bakarrean bota ahalko diren hondakinen gehieneko kopurua mugatzea.
- b. Enpresa txikiek edo autonomoek erabil dezaten baimentzea, baldintzak eta bota ditzaketen hondakin zehatzak eta gehieneko kopurua zehaztuz.
- c. Zuzenbidean onartutako edozein baliabideren bidez botako diren hondakinak etxeoak direla egiaztatzen duten dokumentazioa exijitzea.

### **30. artikulua. Etxeko konpostajea eta komunitarioa.**

1. Hondakinen sorreraren inguruko prebentzioa sustatzeko helburuarekin, legedian ezarritako hondakinen kudeaketako hierarkian lehen mailan kokatu baita, eta, aldi berean, autosufizientzia eta hurbiltasunaren lege-printzipioa betetzeko, kuadrillak lurraldeko herritarreko sortutako biohondakinak konpostatzea sustatzeko behar diren neurriak hartuko ditu. Era berean, kuadrillak lurraldean bertan sortutako konposta erabiltzeko neurriak hartuko ditu.

2. Ordenantza honetan ezarri den moduan, biohondakinak sortzen dituztenek derrigorrez jatorrian bereizi beharko dituzte, edo, bestela:

- a. Biohondakinak in situ tratatzea, etxeko konpostajearen edo komunitarioaren bidez, baldin eta aldez aurretik kuadrillari jakinarazi bazaio, aplikatu beharreko araudian ezarritako betebeharrak betetzeko eta metodo horren bidez kudeatu diren biohondakinen kopurua zenbatzeko.

3. Biohondakinak sortzen dituztenek, biohondakinen tratamendua in situ egiten dutenean etxeko konpostajea edo komunitarioa eginez, kuadrillari aplikatu beharreko araudiak –Erkidegokoa edo Estatukoa– ezarritako informazioa eman beharko diote. Era berean, kuadrillak formatu elektronikoa etxeko konpostajea egiten duten pertsonen zerrenda eguneratua izango du, eta horrek konpostaje

komunitarioko arloak ere jasoko ditu, aplikatu beharreko araudian ezarritakoarekin bat.

#### **4. KAPITULUA. HONDAKINEN BILKETARI BURUZKO XEDAPENAK.**

##### **31. artikulua. Xedapen orokorrak.**

1. Kapitulu honetan ezarritako neurriak udal-eskumeneko hondakin guztien bilketari dagokionez aplikatuko dira, zerbitzua nahitaez ematen bada, edo, bidezkoa bada, aukeran ematen bada.
2. Hala, ordenantza honen 5. artikuluan ezarritakoan oinarrituta, kuadrillak udal-eskumeneko hondakinak biltzeko baldintza espezifikoa ezarri ahalko ditu, 6.2 artikuluekin bat bilketa bereziaren araubidean ematen zen zerbitzuaren premia barne.
3. Udal-eskumeneko hondakinak sortzen dituztenek, ordenantza honen 7. artikuluekin bat, behartuta egongo dira bertan jasotako moduetako batean botatzera, kapitulu honetan ezar litezkeen betebeharrak osagarriekin kalterik egin gabe.

##### **32. artikulua. Berariazko xedapenak jarduera ekonomikoetan sortutako hondakinak biltzeko.**

1. Jarduera ekonomikoen ondorioz sortutako udal-eskumeneko hondakinak sortzaileek, udal-eskumeneko osasun-hondakinak barne, modu hauetakoren batean kudeatu beharko dituzte:

- a. Hurrengo artikuluetan aurreikusitako bilketa-metodoren bat erabiliz, hondakin motaren arabera, kuadrillak adierazitakoari jarraikiz.
  - b. Baimendutako kudeatzaile bati, zuzenean, edo baimendutako kudeatzaile bati emango dizkiola bermatuko duen erregistratutako biltzaile bati emanda.
2. Aurreko 1. apartatuko a) eta b) idatz-zatietako kasuetan, kuadrillak bilketa-zerbitzua emateko baldintzak zehaztu ahalko ditu.
3. Artikulu honetan ezarritakoa kuadrillak ematen duen bilketa-zerbitzuaren barne geratzen diren hondakin guztiei aplikatuko zaie, zerbitzua derrigorrez nahiz aukeran ematen denean, baita zerbitzuen sektoreko edo beste jarduera ekonomiko batzuetako establezimenduetan sortutakoei ere.
4. Ordenantza honen 8. artikuluan arabera, udal-eskumenekoak ez diren hondakinen sortzaileek, baimendutako kudeatzaile bati edo gehiagori emanaz edo kudeatzaile baimendu bati emango dizkiola bermatuko duen erregistratutako biltzaile bati emanaz kudeatu beharko dituzte, eta ez dituzte udalaren bilketa-zerbitzuak erabiliko, 7/2022 Legearen 20.3 artikuluan ezarritakoa betetzeko merkataritza-hondakin ez-arriskutsuen sortzaileen betebeharrari kalterik egin gabe.
5. Kuadrillak egiaztatu ahalko du ekoizlearen erantzukizun hedatutik eratorritako betebeharrak betetzen direla, baldin eta ekonomia-jardueren ondorioz sortutako hondakinak dituztenek bete behar badituzte eta autonomia-erkidegoko organo eskudunari balizko ez-betetzeak sor dakizkionean.

## 1. ATALA. OHIKO BILKETAK

### 33. artikulua. Biohondakinen bilketa bereizia.

1. Biohondakinen sortzaileek derrigorrez jatorrian bereizi beharko dituzte.

2. Etxeko konpostajearen edo komunitarioaren bidez biohondakinak in situ tratatzen ez dituzten biohondakinen sortzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a. Biohondakinak poltsa konpostagarrietan botatzea horretarako identifikatuta dauden edukiontzi edo pareko beste sistema batzuetan, erabilera kolektibokoak edo eskusibokoak direnetan eta erabiltzaileen etxebizitzetan edo gertu daudenetan.
- b. Poltsa konpostagarriek Europako EN 13432:2000 araua eta konpostajearen bidez biodegradaziorako Europako edo Estatuko beste estandar batzuk bete beharko dituzte.
- c. Gainera, ekitaldi publikoak egiteagatik sortutako biohondakinak kuadrillak horretarako gaitutako edukiontzietan bota ahalko dira.

#### **34. artikulua. Ontzi arinen hondakinen bilketa bereizia.**

1. Oro har, 1055/2022 Errege Dekretuaren 2.m) artikuluan ezarritakoaren arabera etxeko ontzi hondakintzat hartzen diren ontzi arinen hondakinak, –edarrantarako botilak, plastikozko poltsak eta 7/2022 Legearen IV. eranskinaren F apartatuan zerrendatutako plastikozko produktuak, etxeko ontzitzat hartzen direnak barne–, metalezkoak –ferrikoa edo aluminikoa, bereziki kontserba-latak eta edarrantarako latak– eta brikak, nahitaez edukiontzietan edo horretarako identifikatutako beste sistema baliokide batzuetan bota beharko dira. Horiek erabiltzaileen etxeetan edo inguruan kokatuko dira, eta erabilera kolektibokoak edo banakoak izango dira. Era berean, ontzi arinen hondakinak horretarako gaitutako edukiontzietan bota ahalko dira.

2. Materia organikoaren hondarrak, hala nola elikadura hondarrak edo beste substantzia batzuk, dituzten botilak, poteak, latak eta beste ontzi batzuk erabat hustu beharko dira bota aurretik, substantzia horien hondarrak ezabatzeke.

3. Artikulu honen 1. apartatuan adierazitakoa gorabehera, Kuadrillak erabaki ahal izango du 7/2022 Legearen IV. eranskinaren E apartatuan aipatzen diren plastikozko botilak (edartarako botilak, hiru litro arteko edukierakoak, tapak eta tapoiak barne) bereizita jaso behar izatea, bereizita edo bereizita bildutako beste hondakin frakzio batzuekin batera. Apartatu honetan ezarritakoa aplikatu behar denean, kuadrillak ontzien hondakin horiek botatzeko baliabide espezifikoak zehaztuko ditu.

### **35. artikulua. Paper eta kartoizko hondakinen bilketa bereizia (halako materialeko ontziak barne).**

1. Oro har, etxeko hondakintzat hartzen diren paper eta kartoi garbien hondakinak –etxeko hondakintzat hartzen diren ontzi-hondakinak eta bilgarriak ez direnak, esaterako, prentsa papera– nahitaez ahalik eta tolestuen bota beharko dira edukiontzietan edo horretarako identifikatutako beste sistema baliokide batzuetan. Horiek erabiltzaileen etxeetan edo inguruan kokatuko dira, eta erabilera eskusibokoak edo komunitariokoak izango dira. Zuzenean botako dira, eta, hala badagokio, paperezko poltsetan.

2. Zehazki, kartoizko kutxak behar bezala moztu eta tolestuko dira edukiontzietan sartzeko eta botatzeko, ahalik eta leku gutxien hartuz.

3. Bota aurretik, hondakin horietatik hondakin organiko guztiak kendu beharko dira, ehunazkoak, metalezkoak edo plastikozkoak, bai eta paper eta kartoi zikinezkoak ere, eta hondar horiek ordenantza honetan zehaztutakoarekin bat bota beharko dira.

### **36. artikulua. Beirazko ontzi-hondakinen bilketa bereizia.**

1. Oro har, etxeko hondakintzat hartzen diren beirazko ontzi-hondakinak nahitaez edukiontzietan edo horretarako identifikatutako beste sistema baliokide batzuetan bota beharko dira. Horiek erabiltzaileen etxeetan edo inguruan kokatuko dira, eta

erabilera eskusibokoak edo komunitariokoak izango dira. Zuzenean botako dira, poltsarik gabe.

2. Edukiontzian bota aurretik, beirazko ontzietatik bereizi eta dagokion edukiontzian bota beharko dira estalkiak, tapoiak, bilgarriak eta beirazko ontzi-hondakinetik bereizita bota daitezkeen beste edozein elementu. Ondorio horietarako, aipatutako elementu bereizi horiek metalezkoak (ferrikoa edo aluminikoa) edo plastikozkoak direnean, ontzi arinen hondakinen edukiontzian utziko dira, kortxozkoak edo biohondakinak direnean, biodegradagarrienean, edo ehungintzakoak direnean, ehunen edukiontzian, hurrenez hurren.

3. Era berean, edukiontzian edo sistema baliokidean bota aurretik, beirazko ontzi hondakinak hustu beharko dira, bertan gera daitezkeen substantzia hondarrak kentzeko.

### **37. artikulua. Beste frakzio batzuetan barne hartzen ez diren hondakinen bilketa (errefusa).**

1. Hondakinak sortzen dituztenek ordenantza honen II. tituluaren 1. eta 2. kapituluaren arabera, beste frakzio batzuetan bereizita biltzen ez diren eta garbiguneetan entregatu ezin diren hondakinak, hau da, «errefusa» izendatutakoak, xede horretarako erabilera kolektibo edo indibidualeko edukiontzietan edo sistema baliokideetan bota beharko dituzte.

2. Errefusa behar bezala itxitako poltsa iragazgaitz eta erresistenteetan botako da, isuriak saihesteko.

Hondakin horien artean daude, etxebizitza partikularretan erabilitako biomasa edo egur-ikatzeko galdaren funtzionamenduen ondorioz sortutako errautsak eta zepak. Hondakin horiek ezin dira bota guztiz hoztu diren arte, eta debekatuta dago brasa goriak botatzea.

## **2. ATALA. BESTE BILKETA-ZERBITZU BATZUK**

### **38. artikulua. Sukaldeko olio erabiliaren bilketa berezia, udal-eskumenekoa.**

1. Debekatuta dago sukaldeko olio erabiliak saneamendu-sarean botatzea.

2. Herritarrek etxeko kontsumoaren ondoriozko erabilitako sukaldeko olioia ondo itxitako plastikozko ontzietan botako dituzte, ahal dela, berrerabiletan.

- a. Horretarako identifikatutako edukiontzian.
- b. Garbigune finko edo mugikorrean, kuadrillak ezarritako mugen baitan.
- c. Kuadrillak argitaratutako jarraibideekin bat aurretiaz erregistratu eta gaitutako hondakinen kudeatzaileen bidez.

3. Jatetxe, taberna, hotel eta sukaldaritzarekin lotutako bestelako zerbitzuetako titularrek erabilitako sukaldeko olioia biltegitatzeko edukiontzi egokiak eduki behar dituzte, gainerako hondakinekiko berezita gordetzeko. Eta hondakin mota hori baimendutako kudeatzaile bati, zuzenean, edo baimendutako kudeatzaile bati emango dizkiola bermatuko duen erregistratutako biltzaile bati eman beharko dizkiote. Nolanahi ere, kuadrillak erabaki ahal izango du hondakin horiek udalen bilketa-sisteman gehitzea, bat etorritik ordenantza honen formularekin. Hala bada, landare-olio erabiliak ordenantza honetan ezarritakoaren arabera entregatuko dira.

### **39. artikulua. Ehun-hondakinen bilketa berezia (jantziak, oinetakoak eta etxeko beste ehun batzuk).**

Herritarrek ehunak –jantziak, oinetakoak eta etxeko beste ehun batzuk– nahitaez utzi beharko dituzte jarraian adierazitako puntuetakoren batean, berezita bildu, berrerabili eta balorizatzen:

- a. Kuadrillak berak eta kuadrillak baimendutako beste erakunde batzuek bide publikoan herritarren esku eta behar bezala seinaleztatuta jarritako berrerabilera-erakundeentzian, hondakinen bilketarekin eta, hala badagokio, haien tratamenduarekin lotuta 7/2022 Legean jasotako gainerako exijentzien kalterik gabe.
- b. Garbigunean eta Truke Kutxetan.
- c. Erakunde publiko edo pribatuen lokaletan, ahal dela ekonomia sozialeko erakundeetan, baldin eta erakunde horiek kuadrillaren aurretiazko baimena jaso badute erabilitako jantziak eta oinetakoak jasotzeko, bilketarekin eta, hala badagokio, haien tratamenduarekin lotuta 7/2022 Legean jasotako gainerako exijentzien kalterik gabe.
- d. Hala badagokio, ekoizlearen erantzukizun hedatuko sistemek gaitutako bilketa-puntuak.

#### **40. artikulua. Landare-hondakinen bilketa bereizia udal-eskumeneko parkeetatik eta lorategietatik.**

1. Belarra moztean, inaustean eta lorezaintzako beste jarduera batzuetan sortutako landare-hondakinak modu hauetakoren batean kudeatu beharko dira:

- a. Garbigunean edo landako puntu garbian entregatzea, kuadrillak edo, bidezkoa bada, Arabako Foru Aldundiak ezarritako mugetan.
- b. Kuadrillak gaitutako berariazko edukiontzietan edo sistema baliokideetan utzita.
- c. Baimendutako kudeatzaile bati, edo baimendutako kudeatzaile bati emango dizkiola bermatuko duen erregistratutako biltzaile bati emanda.
- d. Hondakinen tratamendua norberak eginda, etxeko edo komunitateko konpostajea eginda, bizilagunei eragozpenak edo usain txarrak eragin gabe egiten baldin bada eta kuadrillari aurretiaz komunikatu ondoren, aplikatu behar den araudian ezarritako betebeharrak betetze aldera eta metodo horren bidez kudeatutako biohondakinen kopuruak kontabilizatu ahal izateko.

2. Artikulu honetan ezarritakoa ez da aplikatu beharko lorezaintzako, garbiketako eta antzeko udal-zerbitzuek edo industria- edo ekonomia-jarduerek sortzen dituzten hondakinei dagokienez.

#### **41. artikulua. Tamaina handiko hondakinen, tresnen eta bestelakoen bilketa berezia.**

Tamaina handiko hondakinak modu honetan bota beharko dira, bereizita biltzeko, 7/2022 Legean xedatutakoarekin bat eta, edozein kasutan, hondakin horiek berrerabiltzea sustatzen duten bilketa-bitartekoak lehenetsita:

- a. Zerbitzurako aurretiazko derrigorrezko eskaera egin ondoren, doako telefonoaren (900 101 476) eta/edo Línea Verde aplikazioaren bidez, eta bide publikoan utziko da bilketaren aurreko egunean, 20:00etatik aurrera.
- b. Garbigunean edo bilketako puntu garbian, Kuadrillak ezarritako mugen baitan.
- c. Baimendutako kudeatzaile bati, edo baimendutako kudeatzaile bati emango dizkiola bermatuko duen erregistratutako biltzaile bati emanda, Kuadrillak baimendu ondoren, eta irabazi asmorik gabeko ekonomia sozialeko erakundeak barne.
- d. Hala badagokio, ekoizlearen erantzukizun hedatuko sistemek gaitutako bilketa-puntu batean utzita.
- e. Bilketa horretan gehienez 3 m<sup>3</sup>-ko bolumena bota ahalko da entrega bakoitzeko. Hondakinak modu ordenatuan bota behar dira, bide publikoan arriskuak eta desordena egotea saihestuz, edukiontzi baten ondoan.
- f. Bilketak barne hartzen ditu tresnak, altzariak, koltxoiak, gailu elektrikoak hondakinak, lehen adierazitako gehieneko bolumeneko adar lotuak edo poltsetan sartuak eta gehienez obra-hondakinen 4 zaku, bakoitza gutxi gora behera 25 kilokoa.

- g. Bilketa egun hauetan egingo da: hileko astearte eta ostegun guztietan Laudion, ostiral guztietan Amurrion, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan Aiaran, hilabeteko bigarren eta laugarren asteazkenetan Artziniegan, eta hileko lehenengo asteazkenetan Okondon. Jaiegunak daudenean, hurrengo egun baliodunera igaroko da.

**42. artikulua. Etxeko hondakin arriskutsuen eta zailki kudeatzen diren udal-eskumeneko bestelako hondakinen bilketa bereizia.**

1. Kuadrillak herritarrek hondakin arriskutsuak bereizita bota ditzaten baliabide egokiak jarriko ditu:

- a. Garbigunean.
- b. Kuadrillak espreski gaitu eta/edo baimendu behar dituen beste baliabide edo instalazio batzuetan.

2. Kuadrillak herritarrei informazioa emango die honako hauei buruz: artikulua honetan araututako hondakinen identifikazio eta ezaugarriak, eta horien ekoizpena murrizteko; dagozkien edukiontziak botatzeko modua; eta bereizita biltzeak gizakien osasunean eta ingurumenean dituen eraginak murrizteko dituen abantailak.

**43. artikulua. Botika-hondakinen eta botika-ontzien hondakinen bilketa bereizia.**

Botika-hondakinak (iraungitako botikak, erabiltzen ez direnak edo botiken hondarrak), bai eta horien ontzien hondakinak (edozein materialetakoak, botikak izan dituztenak) farmazietan dauden bilketa-puntuetan utzi beharko dira, edo, halakorik ezean, bestelako bilketa-puntuetan, botika-ekoizlearen erantzukizun hedatuko sistemen ekimenez.

**44. artikulua. Gailu elektriko eta elektronikoen bilketa bereizia.**

1. Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinak dituztenek honela bota beharko dituzte, berezita biltzeko, bat etorritz 110/2015 Errege Dekretuarekin:

- a. Aukera hori ematen duten hornitzaileen instalazioetan, errege dekretu horren 22 artikuluan ezarritakoarekin bat.
  - b. Garbigunean, ekoguneetan edo aipatutako errege dekretuaren 19.2.a) artikuluan aurreikusitakoarekin bat Kuadrillak aplikatutako bereizitako beste bilketa-baliabide baten bidez.
  - c. Ekoizlearen erantzukizun hedatuko sistemek gaitutako bilketa-puntuetan, errege dekretuaren 25. artikuluan ezarritakoarekin bat.
  - d. Hondakinen kudeatzaileek gaitutako bilketa-puntuetan, Errege Dekretuaren 28. artikuluan ezarritakoarekin bat.
  - e. Kuadrillaren zerbitzua. Tresnen eta hondakin handien sistemaren bidez egiten da, bilketa-egutegiaren arabera, tresnak eta hondakin handiak biltzeko zerbitzuan jakinarazi eta botatzeko betebeharrak berdinekin.
2. Kuadrillak hitzarmenak sinatu ahalko ditu udalerrian jarduten duten banatzaileekin, gailu elektrikoak eta elektronikoak Garbigunean entrega ditzaten, horretarako zehaztutako egutegi, ordutegi eta beste baldintza batzuen arabera.
3. Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinak dituztenek profesional batek esku hartu gabe ken daitezkeen pilak kendu beharko dizkiete, eta ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera bota beharko dituzte.

#### **45. artikulua. Pila eta metagailuen bilketa bereizia.**

Pilak eta metagailuak leku hauetan bota beharko dira, berezita biltzeko, 106/2008 Errege Dekretuarekin bat:

- a. Aukera hori ematen duten hornitzaileen instalazioetan, errege dekretu horren 10.2 artikuluan ezarritakoarekin bat.
- b. Garbigunean, ekoguneetan edo aipatutako errege dekretuaren 10.4) artikuluko a) eta b) apartatuetan

aurreikusitakoarekin bat kuadrillak aplikatutako bereizitako beste bilketa-baliabide baten bidez.

- c. Ekoizlearen erantzukizun hedatuko sistemek gaitutako bilketa-puntuetan, errege dekretuaren 10.4.c) artikuluan ezarritakoarekin bat.
- d. Hondakinen kudeatzaileek gaitutako bilketa-puntuetan, errege dekretuaren 10.4.d) artikuluan ezarritakoarekin bat.

**46. artikulua. Obra txikien eta etxeko konponketen ondoriozko eraikuntza- eta eraispén-hondakin eta -zaborren bilketa bereizia.**

1. Obra txikien eta etxeko konponketen ondoriozko eraikuntza- eta eraispén-hondakin eta -zaborrak (105/2008 Errege Dekretuaren 2.d artikuluan definitutakoak) edukiontzi edo poltsa erresistenteetan jasota entregatu beharko dituzte leku hauetan, behar bezala kudea daitezten:

- a. Garbigunean edo bilketako puntu garbian, ezarritako mugen baitan.
- b. Bilketak barne hartzen ditu tresnak, altzariak, koltxoiak, gailu elektrikoek hondakinak, lehen adierazitako gehieneko bolumeneko adar lotuak edo poltsetan sartuak eta gehienez obra-hondakinen 4 zaku, bakoitza gutxi gora behera 25 kilokoa.
- c. Baimendutako kudeatzaile bati edo baimendutako kudeatzaile bati emango dizkiola bermatuko duen erregistratutako biltzaile bati; kasu horietan honako zehaztasun hauek ezarriko dira:

ba) Bilketa hondakinen tratamendua barne hartuta zakuak merkaturatzen dituzten eraikuntza-materialen banaketa-enpresek gauzatzen badute, horien agentetzat hartuko dira, 7/2022 Legean ezarritakoaren ondoreetarako.

bb) Edonola ere, bilketa gauzatzen dutenek kuadrillaren gaikuntza jaso behar dute.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoaren kalterik gabe, etxebizitza partikularretatik ateratako amiantodun hondakin eta zaborrak eta tximistorratz erradioaktiboak baimendutako kudeatzaileari entregatu beharko zaizkio, dagokion sektoreko araudian ezarritakoarekin bat.

#### **47. artikulua. Abandonatutako ibilgailuen bilketa.**

1. Ezin da ibilgailurik abandonatu udal-barrutiaren lursailetan.

2. Ordenantza honetan ezarritakoaren ondoreetarako, ibilgailu bat abandonatutzat joko da, eta etxeko hondakinaren izaera hartuko du, hurrengo kasuetan, bat etorri 7/2022 Legearen 2.a) artikulua azken paragrafoan eta 265/2021 Errege Dekretuaren 3.d) artikulua bigarren paragrafoan ezarritakoarekin, honako kasu hauetan:

- a. Hilabetez leku berean aparkatuta egon denean eta bere kabuz mugitzea eragozten duten kalteak dituzenean edo matrikulazio-plakarik ez badu edo horiek irakurtezinak badira.
- b. Baja administratiboaren egoeran eta bide publikoan dagoenean.
- c. Agintaritza eskudunak ibilgailua bide publikotik kendu eta udal-gordetegian utzi ondoren bi hilabete baino gehiago igarotzen direnean.

3. Ibilgailu bat erretiratu nahi duenean, titularrak balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuen tratamendurako zentro baimendu (TZB) batean entregatu behar du, zuzenean edo harrera-instalazio baten bidez, eta egiaztatu beharko du ibilgailuaren azken helmuga TZB bat izan dela, bat etorri 265/2021 Errege Dekretuaren 5.1 artikuluan ezarritakoarekin.

4. 265/2021 Errege Dekretuaren 5.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Kuadrillak abandonatutako ibilgailuak jaso eta TZB bati entregatuko dizkio, bertan deskutsatu eta tratatzeko, trafikoari,

ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko araua betetzearen kalterik gabe.

5. 2.c) aurreko apartatuan aurreikusitako kasuetan, eta ibilgailuek, abandonu-zeinuak dituzten arren, matrikulazio-plaka edo titularra identifikatzea ahalbidetzen duen bistako zeinu edo markarik dutenean, titularrari errekerituko zaio, dagozkion epeak igaro ondoren, ibilgailua bertatik kentzeko 15 eguneko epean; eta ohartaraziko zaio, epe hori igaro ondoren, ibilgailua abandonatutzat joko dela, eta aurreko paragrafoan ezarritako moduan kudeatuko dela.

#### **48. artikulua. Etxeko animalia hilen bilketa berezia.**

1. Ezin dira hildako animaliak utzi bide publikoetan edo udal-barrutiko lursailetan.

2. Herritar partikularrek nahiz albaitaritza-klinikek jarraian adierazitako moduren batean kudeatu beharko dituzte hildako etxeko animalien hondakinak, hala dagokionean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko urriaren 21eko 1069/2009 (EE) Erregelamenduan (gizakiak jatekoak ez diren animalia-jatorriko azpiproduktuei eta produktu deribatuei aplikatzeko osasun-arauak ezartzen dituena eta 1774/2002 Erregelamendua (EE), Animalia-jatorriko azpiproduktuei buruzko Erregelamendua, indargabetzen duena) aurreikusitako neurriak aplikatzearen kalterik gabe.

- a. Bilketa-zerbitzu bereziari eskaera eginda, Kuadrillak mota horretako bilketa-zerbitzurik eskaintzen badu horrelako hondakinak jasotzeko, eta hondakin mota hori kudeatzeko berariazko araudirik ez badago, edo, hondakinen ezaugarriengatik, deskonposizio-mailagatik, epizootiagatik, tamainagatik edo bestelako berezitasunengatik udalak hondakinak kudeatu ezin baditu; kasu horretan, interesdunari jakinaraziko zaio nola kudeatu behar dituen.

- b. Baimendutako kudeatzaile bati, edo baimendutako kudeatzaile bati emango dizkiola bermatuko duen erregistratutako biltzaile bati emanda.

**49. artikulua. Ontzien, ontziak ez diren paper-kartoizko hondakinen eta biohondakinen bilketari buruzko berariazko arauak.**

Ordenantza honen 35. artikuluan adierazitako ontzi-hondakinak eta ontziak ez diren paper-kartoizko hondakinak bilketa osagarrietan xede horretarako gaitutako edukiontzietan edo antzeko sistemetan ere bota ahal izango dira, bilketa osagarri horiek 1055/2022 Errege Dekretuarekin bat baimendutako ekoizlearen erantzukizun zabalduko sistemak garatzen dituztenean, baita ekitaldi publikoak egiteagatik gaitzen diren edukiontzi edo sistemetan ere. Azken horietan botako dira, halaber, ekitaldian sortutako biohondakinak.

2. 35. artikuluan ezarritako ontzi-hondakinen eta ontziak ez diren paper-kartoizko hondakinen bilketari buruzko arauak eksklusiboki aplikatuko dira etxeko hondakintzat hartzen diren horietan eta kuadrillaren nahitaezko bilketa-zerbitzuan sartzen diren horietan.

3. Kuadrillak merkataritzako hondakin ez-arriskutsutzat hartzen diren biohondakinen, ontzi-hondakinen eta ontziak ez diren paper-kartoizko hondakinen bilketa-zerbitzua ematen duenean, hondakinen sortzaileek hondakin horiek kuadrillak berariaz adierazitako moduan bota beharko dituzte, 35. artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

***III. TITULUA. ERANTZUKIZUNAK ETA ZEHAPEN-  
ARAUBIDEA***

**1. KAPITULUA. ERANTZUKIZUNA, ZAINTZA,  
IKUSKAPENA ETA KONTROLA**

**50. artikulua. Bide-garbiketari eta hondakinak bereizi nahiz biltzeari buruzko sentsibilizazioa, heziketa eta informazioa.**

1. Kuadrillak herritarrak sentsibilizatu, hezi eta informatzeko kanpainak eta bestelako jarduerak sustatuko ditu, honako gai hauen inguruan: kontsumo-ohiturak, hondakin gutxiago sortzea, hondakinak jatorrian frakzio bidez bereiztea eta dagokien edukiontzietan botatzea ekonomia zirkularrerako, bai eta sakabanatutako zaborra prebenitzea ere.

2. Aurreko apartatuan adierazitakoari kalterik egin gabe, kuadrillak kanpainak egingo ditu, beste administrazio eskudun batzuek egingo dituztenekin bat etorriz, herritarrak erabilera bakarreko plastikozko poltsen eta plastikozko beste produktu batzuen gehiegizko kontsumoak ingurumenean dituen ondorio kaltegarrien eta horiek abandonatzearen ondorioen inguruan kontzientziazteko eta sentsibilizatzeko, bai eta elikagaiak xahutzearen inguruan ere.

3. Aurreko apartatuetan adierazitako jarduerak garatzeko, kuadrillak, besteak beste, lankidetzak-hitzarmenak eta -akordioak sinatu ahal izango ditu pertsona fisiko edo juridikoekin, publikoak zein pribatuak, ingurumena babestea xede duten irabazi asmorik gabeko erakundeekin, ekoizlearen erantzukizun hedatuko sistemekin eta enpresa-elkarteekin.

4. Kuadrillak, hondakinen bilketa bereizia hobetzea sustatzeko, sentsibilizazio-kanpaina eta -jarduketan eta informazioaren berri emango du bere webgunean edo bildutako hondakin-frakzio bakoitzari ematen zaien azken tratamenduaren ondoriozko baliabideen bidez.

**51. artikulua. Erantzukizuna.**

1. Ordenantza honetan ezarritakoa ez betetzea eragiten duten ekintza edo omisioengatik, erantzukizun administratiboa ezarriko da, horrez gain bide zibila edo penala ere irekitzearen kalterik gabe.

Aurreko ondoretarako, ordenantza honetan adierazitako betebeharrak ez betetzearen ondoriozko erantzukizunak subjektu erantzuleei exijituko zaizkie, ez soilik haiek gauzatutako ekintzei dagokienez, baizik eta erantzuten duten pertsonen eta titular diren animalien ekintzei dagokienez ere.

2. Egitateen arduraduna adingabea denean, bere gurasoek, edo tutoretza, harrera edo legezko edo egitatezko zaintza dutenek, ordena horretan, modu solidarioan erantzungo dute eragindako kalte-galerak direla eta.

3. Erantzule bat baino gehiago dagoenean eta ezin denean zehaztu arau-haustean zenbaterainoko parte-hartzea izan duen horietako bakoitzak, erantzukizuna elkartasunez banatu ahalko da.

4. Betebehar kolektiboak direnean, hala nola elementu komunen erabilera, kontserbazioa eta garbiketa, erantzukizuna betebeharra esleitu zaion entitateari exijituko zaio (horren adibidea izan daiteke higiezin bateko jabekideen erkidegoa).

## **52. artikulua. Zaintza eta ikuskapena.**

1. Aiaraldeko Kuadrillari dagokio ordenantza honetan xedatutakoaren eta indarreko araudiaren inguruko betetzeak eta arau-hausteak zaindu, ikuskatu salatu eta, bidezkoa bada, zehatzea, legez edo arauz ikuskatu eta zehatzeko eskumena duten agintari judizial eta administratiboei egitate eta arau-hausteen berri emateari kalterik egin gabe.

2. Jarduera horiek egiteko, Aiaraldeko Kuadrillak honako hauen esku-hartzea eskatu ahalko du: Udaltzaingoko agenteak, baldin badaude, Ertzaintzaren Landa Patruila, Miñoiak, baita udaletako edo kuadrillako teknikariak.

## **53. artikulua. Lankidetzarako betebeharra.**

1. Hondakinak sortu, eduki eta kudeatzen dituztenek eta merkataritza-establezimendu, etxebizitza, industria eta ordenantza

honen xede diren beste jarduera batzuetako arduradunek, aplikatu beharreko araudiarekin bat, aurreko artikuluan aipatutako langileak lagundu behar dituzte instalazio horietara sartzen, ikuskapen-lanak egin ditzaten, eta laguntza eta ikuskapen-lan horiek egiteko behar den dokumentazioa eman beharko diete.

2. Herritarrek dagozkien kanalen bidez kuadrillari edo dagokion udalari edo agintaritza-agenteei jakinarazi ahalko dute bidean edo espazio publikoetan hondakinak utzita daudela, hala nola abandonatutako autoak, altzariak, hildako animaliak, eraikuntza-eta eraispen-hondakinak, etab.

## **2. KAPITULUA. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

### **54. artikulua. Subjektu arduradunak.**

Kapitulu honetan tipifikatutako arau-hauste bat dakarten egitateengatik pertsona fisiko eta juridikoez zehapena jaso ahalko dute, baita, legeak jarduteko gaitasuna aitortzen dienean, eraginpeko taldeek, elkarteek eta izaera juridikorik gabeko erakundeek eta doluz edo erruz horien ardura duten ondare independente edo autonomoek ere.

### **55. artikulua. Arau-hausteak.**

1. Arau-haustetzat joko dira ordenantza honetan ezarritakoaren aurka doazen ekintzak eta omisioak, bai eta jorratzen ari garen gaiei buruzko estatuko legerian edo legeria autonomikoan tipifikatuta dauden horiek ere, ordenantza honen manuek identifikazio zehatzagoa egiten laguntzeko aukeraren kalterik gabe.

2. Ordenantza honetan tipifikatutako arau-hausteak arinak, astunak eta oso astunak izan daitezke, hondakinei buruzko legerian eta Toki-araubidearen Legean ezarritakoarekin bat.

**56. artikulua. Arau-hauste arinak.**

Arau-hauste arintzat joko dira honako hauek:

- a. Hondakinak ordenantza honetan xedatutakoaren edo garapenean ezarritakoaren aurka botatzea edo frakziotan ez banatzea edo hondakin-frakzio bakoitzerako identifikatutakoak ez diren edukiontzi edo puntuetan botatzea.
- b. Edukiontziak edo paper-kartoa bide publikora ateratzea zerbitzu publikoak etxez etxe biltzeko, baina kuadrillak ezarritakoak ez diren ordu eta tokietan.
- c. Tresnak eta hondakin handiak biltzeko kasuan, hondakinak bota eta entregatzeko ordutegiak ez betetzea.
- d. Dagokion kasuan, eskatu ahalako bilketa-zerbitzua eskatu duen herritarrak hondakinak botatzeko eguna, ordutegia eta tokia ez betetzea.
- e. Hondakinak bide publikoan edo kuadrillak zehaztutakoak ez diren tokietan bota edo uztea.
- f. Edukiontziak edo horien edukia manipulatzeko, hala nola tapak eta pedalak, eta paperontziak edo bestelako edukiontziak iraultzea, lekutik ateratzea edo mugitzea.
- g. Edukiontziak ordenantza honetan aurreikusitako xedeak ez diren beste xede batzuetarako erabiltzea.
- h. Edukiontziak erabilera eksklusiborako erabiltzea, aldezturik kuadrillaren baimena izan gabe.
- i. Merkataritza-hondakin ez-arriskutsuen ekoizleek eta/edo edukitzaileek ordenantza honen 6. artikuluan xedatutakoa ez betetzea.
- j. Horretarako gaitutako edukiontziak paper eta kartoizko hondakinak oker botatzea, ondo tolestu gabe eta bertan bota ez dena kendu gabe.
- k. Aurretik jakinarazi gabe, ordena eta bolumenari dagokionez egokiak ez diren baldintzetan edo ezarritakoa ez den ordutegian bide publikoan gauzak eta altzariak uztea.

- l. Bide publikoan hildako animaliak uztea.
- m. Arau-hauste astun edo oso astun moduan espreski tipifikatuta ez dagoen ordenantza honen beste edozein ez-betetze.

### **57. artikulua. Arau-hauste astunak.**

Arau-hauste astuntzat joko dira honako hauek:

- a. Bide publikoan edo kuadrillak zehaztutako lekuetatik kanpo edozein motatako edozein hondakin abandonatzea edo isurtzea, sakabanatutako zaborra barne, baldin eta ez bada pertsonen osasuna arriskuan jartzen eta ez baldin bada ingurumenarekiko kalte edo narriadurarik eragin.
- b. Zaintza-, ikuskapen- eta kontrol-jarduera oztopatzea, eta ordenantza honen 53. artikuluan aurreikusitako lankidetzarako betebeharra ez betetzea.
- c. Toki-eskumeneko hondakinak entregatu, saldu edo lagatzea ordenantza honetan adierazitakoez bestelako pertsona fisiko edo juridikoei, bai eta hondakin horiek jasotzea ere aurreikusitakoez bestelako baldintzetan.
- d. Dokumentazioa emateko betebeharra ez betetzea, eta aplikatu behar den araudiak exijitutako datuak ezkutatzea edo faltsutzea.
- e. Establezimendu edo instalazioen arduradunek jatorrian banatzeko betebeharra ez betetzea.
- f. Ordenantza honen 12. artikuluan ezarritako betebeharra (ekitaldi publikoetan ontziak, bilgarriak ez diren paperkartoizko hondakinak eta biohonadakinak jatorrian bereiztekoa, alegia) ez betetzea.
- g. Ordenantza honetan ezarritako moduan hondakinak udalzerbitzuen esku jarri ondoren, hondakinak erauztea, horietan bilatzea edo horiek jasotzea, ingurunea zikinduz.
- h. Erretzen ari diren hondakinak botatzea, hala nola zigarro-puntak, erreketen hondarrak, eta abar, behar bezala itzali ez direnean.
- i. Etxeko hondakinak edo horien antzekoak botatzeko edukiontziak erabiltzea halakotzat ematen ez diren eta

baimendutako kudeatzailearen edo erregistratutakoaren bidez kudeatu behar diren hondakinak botatzeko.

- j. Baimenik gabe etxeko hondakinen edukiontziak instalatzea espazio publiko eta/edo pribatuetan.
- k. Oso astuntzat jotako arau-hausteetako bat egitea, baina zenbatekoa edo izaera dela-eta oso astuntzat jotzea merezi ez duenean.

### **58. artikulua. Arau-hauste oso astunak.**

Arau-hauste oso astuntzat joko dira honako hauek:

- a. Bide publikoan edo kuadrillak zehaztutako lekuetatik kanpo edozein motatako edozein udal-hondakin abandonatzea edo isurtzea, hondakin arriskutsuak barne, baldin eta pertsonen osasuna arriskuan jartzen bada eta ingurumenarekiko kalte edo narriadurarik eragin bada.
- b. Toki-eskumeneko hondakin arrikutsuak entregatu, saldu edo lagatzea ordenantza honetan adierazitakoez bestelako pertsona fisiko edo juridikoei, bai eta hondakin horiek jasotzea ere aurreikusitakoez bestelako baldintzetan.
- c. Aurreko artikuluan astuntzat tipifikatutako jokabideak, ondorio hauek izan dituztenean:
  - c.1. Beste pertsona batzuen eskubide legitimoen erabilerari, aplikagarria den araudiaren arabera edozein motatako jardueren garapen normalari edo osasungarritasun eta apainketa publikoari edo lasaitasunari zuzenean eta modu larrian eta berehalakoan bizikidetzari eragiten dion nahasmendua, Herritarren Segurtasuna Babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoan tipifikatutako arau-haustean subsumitu ezin daitezkeen jokabideak baldin badira.
  - c.2. Horretarako eskubidea duten pertsonak bilketa-zerbitzu edo beste zerbitzu publiko bat erabili ahal izatea eragozteak.
  - c.3. Bilketa-zerbitzuaren ohiko funtzionamendua modu larrian oztopatzea edo hori erabili ahal izatea eragozteak.

- d. Edukiontziak eta/edo hondakinak erretzea.
- e. Bideak garbitu eta/edo hondakinak biltzeari dagokionez, ekitaldi publikoak antolatzeaz arduratzen direnen betebeharrak ez betetzea.

### **59. artikulua. Zigorrak.**

56. eta 58. bitarteko artikuluan tipifikatutako arau-hausteez honako zigor hauek izango dituzte (Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 109. artikuluan ezarritako mugekin bat):

1. Arau-hauste arinen kasuan: 2.000 euro arteko isuna.
2. Arau-hauste astunen kasuan: 2.001 eta 100.000 euro arteko isuna.
3. Arau-hauste oso astunen kasuan: 100.001 eta 3.500.000 euro arteko isuna.

### **60. artikulua. Proposatutako zigorra murriztea.**

Arau-hausleak borondatez isuna ordaintzen badu ebazpena eman aurretik, prozedura ebatzi behar duen organo eskudunak proposatutako isunaren zenbatekoaren ehuneko berrogeita hamar arteko murrizketak aplikatu ahalko ditu. Murrizketa horiek prozedura abiarazteko jakinarazpenean zehaztu beharko dira.

### **61. artikulua. Kaltea konpontzeko betebeharra.**

1. Kasu bakoitzean dagokion zigorraren kalterik gabe, arau-hausleak eragindako kaltea konpondu beharko du asaldatutako egoera jatorrizko egoerara leheneratuta, eta bere gain hartu beharko du eragindako kalte eta galeren kalte-ordaina.
2. Kalte eta galera horiek udal-titulartasuneko, kuadrillaren edo dagokion udalaren ondasunei eragiten zaizkienean, zerbitzu tekniko eskudunek tasatu ondoren, konpontzeko zenbatekoa zehaztu eta arau-hausleari jakinaraziko zaio, baita bere ordeztu.

erantzun behar duenari ere, ezarritako epean zenbateko hori ordain dadin.

3. Zenbatekoaren arabera ezarritako epean kalte-ordaina osatzen ez bada, ondarearen gaineko premiamendu-biderako araututakoari jarraituko zaio.

4. Eragindako kaltea konpontzen ez bada horretarako adierazitako epean, edo arau-haustea eragin duen jokabidea mantentzen baldin badu, organo eskudunak hertsatze-isunak jartzea erabaki ahal izango du, 62. artikuluan ezarritakoaren arabera.

5. Halaber, adierazitakoa bete ezean, Kuadrillak subsidiarioki leheneratu ahal izango du, bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 102.3 artikuluan ezarritakoarekin. Egin beharreko jarduketan ondoriozko gastuak arau-hausleak ordaindu beharko ditu; eta, hala badagokio, eragindako kalte-galerengatik dagokion kalte-ordaina ere exijituko zaio.

#### **62. artikulua. Hertsatze-isunak.**

Ordenantza horren aurreko artikuluetan tipifikatutako arau-hausteen kasuan, ezar daitezkeen isunari kalterik egin gabe, organo eskudunak hertsapen-isunak ezartzea adostu ahalko du, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 117. artikuluko 1. eta 2. apartatuetan ezarritakoarekin bat.

Isun bakoitzaren zenbatekoak ezingo du eginiko arau-hausteagatik ezarritako isunaren herena gainditu.

#### **63. artikulua. Zehapen-eskumena eta -prozedura.**

Kuadrillako presidenteari edo berak eskuordetutako pertsonari dagokio zehatzeko administrazio-espeditenteak ebatzea, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.3 artikulua eta Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak

arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 12.5 artikuluko d) apartatuak horretarako emandako eskumenarekin bat.

Ordenantza honen arabera zigorren ezarpena eta erantzukizunen exijentzia hauen arabera gauzatuko dira: Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea, eta aplikagarriak diren gainerako araudiak.

Zehapen-prozeduraren izapidetzea eta ebazpena administrazio-prozedurari eta zehapen-ahala erabiltzeari aplikatu behar zaion araudiaren arabera izango dira.

#### **64. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epea.**

Zehapen-prozedurak ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, abiarazten direnetik zenbatuta, kalterik egin gabe aplikatu beharreko legediaren terminoetan izapidetze sinplifikatua egiteari (Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legea).

#### **65. artikulua. Arau-hausteen eta zigorren preskripzioa.**

1. Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legearen 22. artikuluan ezarritakoarekin bat, preskribatu egingo dira:
  - a. Arau-hauste arinak, sei hilabeteko epean; astunak, bi urteko epean; eta oso astunak, hiru urte igaro ondoren.
  - b. Arau-hauste arinengatik ezarritako zehapenak urtebete igarotzean preskribatuko dira, arau-hauste astunen zehapenak bi urte igaro ondoren, eta arau-hauste oso astunenak hiru urte igaro ondoren.

**AZKEN XEDAPENA. Indarrean jartzea.**

Ordenantza hau indarrean jarriko da osorik Arabako lurralde historikoko aldizkari ofizialean (ALHAO) argitaratzen den hurrengo egunetik, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoarekin bat.